



irakasleen liburutegia

BEREZKO
IRAKURPIDEA

LARRESOROK PRESTATUA

«Gauza Harrigarriak» liburu sorta dela
bide «Iñaki beobide banatzailea»ren ba-
bespean.

«IRAKASLE ELKARTEAK» eragina.

LARRESORO-K prestatua.

D. L. S. S. 265/72

Iñaki Beobide
Ferrerías, n.º 1-acc. 10
San Sebastián

Iñaki beobide
DONOSTIA
BANATZAILE BAKARRA

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

AURKIBIDEA

Eskolastikaren sasi-zientziako erakaspideen makurra. Bide berezkoago eta onuratsuagotan barrena ikaskizunen jabe-kuntzaz	7
Berezko idazketaren eta irakurketaren hastapenak. Entseguzko oharketaren erakaspeneak). Marrazkitza, haztamuzko ekin-tzaren eredu	19
Marrazkitik idazketara	35
Hitzen mamia	42
Irakurri baino lehenago, geure burua azaldu	46
Idazkeraren hobekuntza	52
Moldiztegia eta gutunetatik ateko izkribuak	60
Irakurrera	64
Irakurreraren eta idazkuntzaren tekniken jabe-kuntza osoruntz	71
Ikaspenaren zitua	84
Pedagogi-ondorioak	91
Berezko ikaspide berria	96
Hiztegi	115

BEREZKO IRAKURPIDEA

(C. Freinet)

ESKOLASTIKAREN SASI-ZIENTZIAZKO ERAKASPIDEEN MAKURRA

**Bide berezkoago eta onuratsuagotan
barrena ikaskizunen jabekuntzaz**

Zuek ama bati —hau diplomatua dela, are gramatikaren eta fonetikaren erakasle dela— haren haurrari hitzegiten erakasteko zein bidez jokatu duen galdetuz gero, harrituta begiratuko lizueke haren eskierki. Zer bada? Bizpahiru erakaspide bada-ala gure haurrei hizkuntza erakasteko? Hizkuntza erakasteko teknikarik ere bait legoan! Mintzatzen ikasteko haurrak ez du ikaspide bat baizik: berezko jabekuntza zabalaren araberaren lortzea, «Essai de Psychologie Sensible appliquée

à l'Education» deritzan geure liburuan mamitu eta zehaztu dugun saiaketan barrenekoa hain zuzen.

Halako batez ustekabeen, edo erdi-ustekabeen bederen, haurrak, berezituago ala nahasiago, garrasi bat entzunarazten du. Eta berehala konturatzen da —nahiz oso ilunean izan, eta senatik eta inkontzientetik bertago molde landu guztietatik baino— garrasi horrek baduela eragin apur bat ingurunean; eta eragin horrek eta bere ondoan erakartzen dituen hotsek, elkarrek antza ere badutela. Garrasi horietxek, hain zuzen, poliki modulaturik, artikulaturik geroago, azken buruan hizketa bilakatuko dira.

Zerek eraginik? Eta zein erataria mamituko da aldakuntza hori, eta garaitzapena burutuko?

Aldakuntza horren hildoa jarraituko dugu hemen. Bide hori ez da, bestalde, mintzairaren jabekuntzaren ezagugarri berezia:

a) Maila eta sail guztietan, bizi-etzen izkutu bitxi batek akuilatzen bide du gizona beti aurrerago jotzeko: etengabe nahi du, antza, igo, hazi, osatu, tresneriaz eta lanabesez jabetu; eta hauen bitartez bere ahalak handitu eta emendatu.

Behar hori gizonarengan ez balego, gure saiaketa eta gure pedagogia-aurkikunde guztiak funtsetik lirake alferrak; tximuen heziketan egiten direnak, iraunkor eta sistemakorrak oso izanagatik ere, alfer gertatzen diren bezala.

b) Psikologiko baino fisiologikoago den beharra nabaitzen du pertsonak, bere ekintzak, keinuak eta

oihuak ingurukoekin bateratzeko; eta besteekin batera jokatzeko premia. Ondokoekiko desberdintasunak, etendurak eta desegikotasunak oro, desegintza, deuseztapen eta fundiera gisa senditzen ditu, eta oinaze-iturri bihurtzen zaizkio. Ez da horretan iduriketa-behar hutsik somatu behar: berdin egiteko joera hori sakonago, organikoago eta behartzaileago da. Keinuk beste keinu antzeko bat sortzen du, erritmoak batera eragiten ditu giharreak, eta garrasiak beste garrasi berdín bat dakar ondotik.

Lege hau dela bide, gisa da haurrak bere keinuk eta bere garrasiak, inguramenduko keinuen eta garrasien arabera moldatu nahi izatea.

d) Helburu hori nola lortuko?

Ez dago bide bakar bat baizik: saiakuntzarena, haztamuka egiten den saiaketarena. Zientzia berbera, jobabide horren ondorioa baizik ez da.

Bere garrasiak inguramenduko garrasiekin ezkondu nahian, gorputzak eskaintzen dizkion aukerak eta soinu-bideak oro saiaturiko ditu haurrak: mihiaren eta ezpainen mogida, hortzen karraska, arnasaren hartzea eta botatzea. Egoki gertatu zaizkion saioak, gero berriz ere erabiltzekotan, gogotan hartzen ditu, eta handik aurrera mintzo-lege eta bizi-lege bihurtzen zaizkio.

Denbora ezin laburragotan, horrela, entzuten dituen soinu berberak birresatea lortzen du. Anitz saioen ondoan, egia da; baina gizonak, bere bizi osoaren etorkizuna saialdi horietan jokatzeko dela dakielarik, ez du bere nekea neurtzen ez mugatzen. Ez neurtzenago edo mugatzenago, bestalde, jokatzaileak bere bolak egun

osoan barrena, eta anitz urtetan, bere keinuen zehaztasun-beharrak eraginik, neurtzen eta mugatzen dituen baino.

Horretan haztamuzko saiaketa dago soilik, entsegu esperimental hutsa, eta ez arrazoin-bide arrastorik. Hona hemen honen agiriak.

Haurrak ongi imitatu edo idurikatuko badu, ongi entzun behar du. Edozein soin-akatsengatik egokiro entzuten ez badu, eta edozein belarri-eskasiarengatik soinu-plegu hau edo hura berezten ez badu, haur horrek ez du esandakoa ongi idurikatuko eta emango.

Areago: nahiz guztiz ongi entzun ahal izan, sorkurazko edo halabeharrezko flakia batengatik, eskuarrean dituen saiaketen ilara hemen edo han maingu edo ebakia baldin badu, ez du soinu-sorta osoa lortuko.

Berdin idurikatuko ditu, eta ikasiko, beraz, hizkuntzaren akatsak eta hizkuntzaren egokitasunak. Beste-rik gabe, batera jarriko ditu bere burua eta inguramenduko hizkera. Hortik heldu ohi dira doinuen iraupena, tokiko hizkeren berezitasunena, eta famelia bati edo talde bati ohi datxezkon doinu-akatsen biziera luzea.

a) Alderantziz, bada heziketa-lanari bere balio osoa ematen dion beste eragile nagusi bat: haztamuzko saiakuntza hori osatua, hobetua eta azkartua izan daitekeala.

Abiadura berri horren gakoak, noski, inguramendu «laguntzailea» da: honek ahalik eta eredurik onenak eta tatxagabeenak presentatzen dizkio haurrari, saia-

keta pertsonalantzako bidea prestatzen, arrakasten ta-
xuketan eta hutseginen bazterketan laguntzen.

Gizonak jokabide hori aldatu nahi balu, bere hezi-
bidea beste oinarri batzuen gainean eraiki nahi balu;
arrazoinbidea, logika, oroimena edo adimena, esate
baterako, baliatu nahi balitu; hutsik larriena egingo lu-
ke horretara, eta gizonaren beraren kaltetan. Ezen sa-
si-zientzia horrek, hau bai, oso azkar egingo bait lituz-
ke urratsak; baina, ordainez, gizona bere desirarik sa-
konenen muinean bertan geldituko bait litzake kolpa-
turik eta zauriturik.

* * *

Hauxe da, ordea, eskolastika zaharrak egin zuen
makurra. Haztamuzko saiakuntzaren ordez, itxuraz lo-
gikaren eta zientziaren zerbitzutan, saiakuntza hori baz-
tertzen duen erakaspidea onartu zuen. Zertarako utzi-
ko dugu haurra, zion eskolastikak, denbora galtzera?
Zergatik hor haurra bere gisa estropozoka, haztamu-
ka, kinkili-konkolo edo lauroinka ibiliko? Edo, erredi-
zei helduta, harrastaka eta luzaz nekaraziko? Eta, az-
kenean, azken buruan, baina ez lehenago, nahi genuen
ibileraren nagusitasuna iritsiko? Ibilera jarraikia eta
eratsua, laisterketa eta jauzia; eta segurki emanak de-
nak. Horra hor, funtsean, helburua.

Aski dugu, hortaz, mogidak, trinkaerak eta laxae-
rak, zientziakiro atalkatzea eta analizatzea; eta ibile-
raren heziketa arrazointsuago bat lortzeko, gero keinu-
-atal edo mogida-parte horiek egokiro eta banan-ba-
nan azaltzea. Alferrik da haurra hastapenetako saio
funsgabeetan barrena pasaraztea.

Egia esan, arrazoinbide hau ez da orain arte behin ere osoki erabilia izan ibiltzen erakasteko, ezta hitzegiten erakasteko ere; edo, inoiz erabilia izan bada, badirudi erakaspide horren lurjotzea hain izan dela guztizko, nabarmen eta osoa, non-da saiaketari eusterik ere izan ez bait da. Baliteke ere Eskolak helburu eta mugarri zehatzegiak izatea; eta, hortaz, abiaburutzat beti hartu izan dituela ibiltzen eta hitzegiten bazekiten haurrak. Edo aurreragoko ikasaldietan, osotara jo duela erreka; eta berezko erakaspideen ordeztu egin ote diren saio horien aztarnarik gelditu ere ez zaigula.

Dena dela, beti berezi ohi dira, nolatan garbi ez dakusagula, haurrak fameliarekin ikasten duena bate-tik, eta haurrak eskolan ikasten duena bestetik. Hau dela-ta, ama erakasleari giza-garaitzapen guztien fun-tsezko batasuna aipatzen zaiolarik, harritu egin ohi da: hots, maila berean balioko eta eragile diren erakaspi-de biak behar dira elkartu.

Nola egin, ordea? Eta zer balio zuten eskolastika zaharraren bideek?

Sail guztietan helburu berbera agiri da: haztamuzko saiaketari uko; eta sistemakiro segi behar diren ari- ketak eta arrazoinbide hestruak saiaketa oldezko haren ordari.

Marrazkiari gagozkiolarik,, gonbarazio baterako, marra garbitik hasi behar Eskola zaharrean; nahiz marra soil eta garbi txukun hori, hain zuzen, haztamuzko saia- ketaren eta oldezko zirriborroaren frutu huts izan. Ge- ro mekanikazko marra makurra etorri ohi zen, behin eta berriz askatasunik gabe eta hertsiki-hertsiki eredu honetatik edo hartatik kopiatua. Noski: hau guztia hes-

tu, inolako fantesia-lerrotara lerratu gabe, inolako zirriborrorik sekula onartu gabe. Lehenagoko Eskolak, jakina denez, gupidarik gabe jazartzen zituen zirriborroak; baina hauek, halere,, inoiz baino ugariago, inoiz baino pixkorrago, biziago eta jatorrago, beti ageri liburuen azaletan, idatzitako orrialdeen bazterretan, hondarretan, ezpaloian, ateetan eta paretetan. Jakin egin nahi genuke, hain zuzen, haztamuzko ekintza libro, oldezko eta izkutu hau noraino ez ote den izan eskolastika zaharraren arrakastaren giltzarria!

Noraino ez ote den izan, hain zuzen, zapal eta eskura ezin zitekean bizi-jario hori eskolastikaren lehorra eta heriotza gairitu dituen indarra.

Orain dela gutxi, ereduak ingurrazkitan hasi ohi zen idazketaren ikaspena: ingurrazkiaren ereduak zekarren puntukako lerro-guneari jarraitu behar izaten zion lapitz moldakaitzak. Gero hitzen lerrokadak ohi zetzuten, geroago paragrafoak eta orrialde osoak, eta hauen bidez, ulergarri ez ziren (ezta ulertuak ere) eskuliburu galantak kopiatzen. Hau eginez, noski, fantesia-mota guztiak ito-arazten ziren, haurrak, indarraren eta biziaren bila abiatuak, bere gisara erabili nahi izaten bait zituen tresna berriak; eta nahi horixe bait da, funtsean, inportanteena.

Alferrik ari zen Eskola zaharra, halaz ere: hementik eta handik, letraren molde berrian, idazkiaren ortografiaren eta joskeraren bitxikerietan, erregela eragabeen kontrako protestazio iraunkorra aurki zitekean. Oraindik ere azterkizun dago, nion eta diot, eskolastikaren arrakastarik ospatuenak ez ote diren etorri, hain zuzen, oharkabeko oihu eta zirriborro izkutu horieta-

tik; erregelen hertsikeriez gain ez ote dioten hauek adierazmen pertsonalari irtenbidea eman.

Irakurpide hura, nahi-ta-ez, hastapeneko «a, e, i, o, u» eta «pa, pe, pi, po, pu» delakoetatik hasten zen. Eta ilara horiek, itxuraz, hitz zail guztien lerrokada logikoa eta arrazpintsua berbera ziren. Gisa zen, hortaz, irakurketaren argi epeletara silaba horietxen bitartez iristea.

Gogo biziak kurrutzen zituen haurrak orriok: ezagutzen zuen ideiaren bat aurkitu nahi zukean, adimen soil eta hutsezko ariketa lehor haien aringarri. Alferrik bilatzen, ordea.

Ikaspen horren idortasuna nolapait ere haurrak bere izkuntzaz eta bere pentsamentu aberatsez busti izan ez balu; haur idazleak behetik gorako hitz horiez kanpikorik ezer benetan izan ez balu; alegia, mundura horrelaxe haurra iristarazteko aski indarrrik inun izan balitz, haur hori, tximua bezala, logikabide guztietatik at geldituko zitzakeen. Musikan eta kantuan bilatuko zukean heziketa-makur horiek konpontzeko bidea. Eta haurrek azkenean ezer ikasi baldin badute, zinez diot, gakoa ez da eskola izan. Aurkeztu ziren moduan ikasi dute irakurtzen, gainera: eskolastika huts gisa, eginbide horretan pentsamentuen adierazpenarekin eta barne sendimenduekin ezer ikustekorik ez balu bezala; eskola, lanabes biloiz bat besterik ez balitz bezala; eta eskolatik irtenda, behin eta betirako gauza baliogabeen zulora botaiak izan dira denak.

Haurra ahapeka hasten da kantatzen edo txistu-egiten; eta horretan ez du kontutan hartzen eskalarik ez doinu zehatzik. Eskola zaharrak debekatu egiten zituen

haztamu horiek, eta bere ikaspide sasi-razionalak sarrazten: alegia, kantatzera ez uztea; eta honen ordez, eskalatan eta bokalizaziotan barrena haurra abiaraztea... Noski: debeku horiek zehatz eta ondo kantatzen jakin arte, omen! Hots, horretan ez dago zalantza izpirik: haurrek, oro har, kantatzen baldin badakite, eta musika inoiz maite, eskolatik kanpora ere kantatu eta txistu-egin dutelako ikasi eta maite dute: edo idiak gidatzerakoan, edo ilunabarreko txori amaiei txorrotxioak idurikatzean; edo sartzerakoan, abots garden eta beroen multzotan, biziaren edertasuna eta suntsitu ezinezko konfiantza goratzen abiatu direnean. Eskolak eskaini omen dien musika-lanabesa, ez dute sekual erabili eskolatik kanpora.

Berezko saiaketa etengabeak egiteko, edo mekanika matematikoan barrena abiatzeko, era berean, haurra ez dago Eskolaren zai. Hondarrari eragiten dionean, uretan bera murgiltzen, suaren ondotik higitzen, edo ohol baten gotortasuna edo oreka frogatzen duenean, ez ote du haurrak benetako zientzia-saiaketarik egiten? Eta txotxak lerrotan ipintzen dituelarik, intxaur edo sagar mordoskak alderatzen, zenbaketa bat berretzen, eta abar, ez ote da matematika-hastapenetan aurrera abiatzen; eta hau eginez gure garaiko pedagogiariek gomendatu dituzten ikaspide haietxek baliatzen?

«Utikan!», dio Eskola zaharrak. «Kanpora kondaira-aurreko bidaiari hori, eta alferrikako zalantzaldi horiek!». Eskola eskuzabalak baztertuko ditu eskualde ilunetako inguru luze horiek. Eskutik helduta gidatuko ditu ikasleak legeen eta teoremen bideetan barrena. Horiek kontutan har, eta egina! Ezagueraren nagusitasuna lortuta!

Horiek, ordea, tresna osatuegiak dira haurrarentzako; kamino eta bidezabal horiek zuzenegi zaizkio, jarraituegi eta mugatuegi. Haurrak bide txigorrak maitago: hauetako bihurtuak ibilbideareb koloregabatasun hitsa kentzen dute. Txioa ari diren kabiak, aldiz, eta txorien kantuak izkututzen dituzte kamino nagusiko hesiek. Bide medarrak aldiz, etxerako bide ezaguna dirudi, betikoa, ezaguna, baserrietan eta ehiz-atarrietan barrena tarteka zabaldua.

Ondoko hau esanez ez dugu zuzengabe eta gizatxar izan uste: haur modernoak —herri xeheko haurrez ari gara hemen— zientzien sailean lortu duena, ez dela eskolastikaren erakaspide itxurazaleen bidez bildu, etengabe eskolatik kanpoko haztamuzko saiakuntza izkutuen bidez baizik. Dendariak egokiro karkulatzen badi, eta saltzaileak oihalaren zuntza ikusmenaz ezañutzen; merkatariak, berebat, opa lituzkean abereen gaitasuna harrigarri zehazki neurtzen baldin badaki; ez die zehaztasun hori eskolari, edo eskolako erakaspe nei, zor; haztamuka osatuz joan den esperentziari baizik. Hau ingurune zabalagoan obratu bait da azkenean, eskolako giro sasi-razional itogarrian baino.

Alde batetik, badugu guk geure alde ibileraren, orekaren eta hizketaren jabekuntza, ezagutzen diren segurantzia eta frutua. Eta bestetik, badago biziaren isuriak, gorago azaldu dugunez, beti eta osotara gaintua duen eskolastika zaharra.

Ez ahal da, beraz, bidezkoa guk eskolastika horren erakaspideak zalantzan jartzea; eta, horien ordez, haztamuzko saiaketa hedatu nahi izatea? Batez ere familiarren mailan honek bere bikaintasuna erakutsi duelarik...

Badakigu, bai: nortasun apartako zuzendari batzuei utzi, eta eskolan mendetan barrena mamitu diren erakaspideak orain XX mendean alde batera, sakrilejio kutsuko zerbait egiten bide dugu.

Saiapidezko zientziak funtsatzeko jarri diren zimen-
duak zerbitzatuz gaude sakrilejio hori egiteko gertu.
Egia esateko, eskolastika arbuatuz, berezko eragileen
bidetik beretik abiatzen gara; Claude Bernard-en ahol-
kuaren arabera, «hautatu dugun helburua iristekotan,
hain zuzen, gogoeta, saiaketa, haztamu, alderaketa eta
elkarketa egiten dugu, egokien izango diren saiakun-
tza-baldintzak lortzeko».

Ez dugu itsu-itsuan, beraz, betiko errepideak narda-
turik edo, bide txigor batetara jotzen. Ez. Entseatu
eta alderatu egiten dugu. Baztarrera bota nahi ditugun
erakaspideen orde, geure ustez, maila bereko zien-
tziatasuna duten teknika berriak fintzen ditugu.

Ondoko orrietan finketa horren pausu batzuk aur-
keztuko ditugu.

Gure entsegu-oharketak hau izan du aztergaitzat:
haurrak nola lortzen duen, biziarekin nahasirik, idaz-
ketaren eta irakurketaren teknika; baita, hortaz, horien
agertzapen nagusia den mintzaira bera nola osatzen
duen.

Bi urteren inguruko neskatila bat hartu dugu gidari:
Bal., adimenez eta soinez normala, giro normal bate-
tan ere ezarria. Ohar bat egin behar halere: neskatil-
ak ez duela eskolastika zaharreko teknikarik ezagutu.
Puntu hau, bestalde, ezinbesteko betebeharra genuen,
haurrak horrela bere bilakaera geldian barrena, alda-

keta normala izan zezan; eta honen arabera, guk bidez ondorioak atera ahal genitzan.

Urraska jarraituko dugu bilakaera hori, eta maila bakoitzari dagozkion dokumentoak azalduko ditugu. Gero, oharpide etengabe horren kritika objetiboa egingo dugu; eta, bukatzeko, pedagogi-ohar batzuen bidez hetsiko dugu liburua. Oharrok, noski, alde zaurerikako kutsu-mota guztiak erazirik egingo ditugu; eta horrela beste oharketa antzekoren laguntzaile gerta gaitzeko, baita, beranduago, arrazionalago eta ekarorrago izan daitezken beste teknikaren bilaketan oinarri.

BEREZO IDAZKETAREN ETA IRAKURKETAREN HASTAPENAK

(Entseguzko oharketaren erakaspentak)

MARRAZKITZA, HAZTAMUZKO EKINTZEN EREDU

Eskuarki hazitako haur guztiek bezala, bere indarrak neurtu nahi zituen Bali-k oso goiztik eta era askotara. Hasera-haseran oldezko keinadaren bidez; geroago bere soin-atalen mogidak hobeki eskuratuz, eta eskuen bidez bereziki. Mahainaren gainetik pasara borobil bat eman eskueaz, eta bertan zegoen guztia lurrera botatzea... haren poza! Edo-ta, zuhurki begiak hetsiz, ontzi batetako ur-gainaldean esku-ahurraz zabal-zabalik jo eta plasta; eta bai zipriztina ederrak jalgitzen! Poz berbera krematan behatzak blai bizkatu, eta mahainean, parretetan edo goizeko mantal ezin garbiagoan, tatxak

egitea! Nolako liluramendua, azkenik, behatzak tinta-pototxoan busti, eta honera eta hara eskuak, orban handi asko eginaz; eta hauetan bizi, aldakor, aldagarri, arbolak, gizakiak eta munstroak somatzea. Denok haztamuzko entsegu eraikikuntzaren eta sorkuntzaren ederrean.

Orrialde zuri eder batetan arkatzaz idazten ikusi nau Balik, eta segituan gauza bera egiteko gogo bizia nabaitu du: arkatza oker aldera hartu du... Eta alde hcrretatik, hain zuzen, etsi egin behar: ez du deusik markatzen! Beste muturretik, berriz, hori lilura! Eskua-ren mogimendu bakoitzak bere aztarna majikoa uzten! Marrak, gainera, bikoiztu egiten dira, edo ustekabean elkar gurutzatzen, inolako elkar-legerik gabe. Itxuragabeko marrazki horietatik abiatuta, ordea, segidan ikusiko dugunez, piskanaka jaio, mamitu eta hazi egingo da marrazkizko mintzamina, haurraren adierazpen zorrotza lerrotan azalduko.

Haurra haerle ez da bere lanaz pozik geldituko. Eta beste haur batzuk marratzen hasi baino lehenago arkatzaren punta milikatzen ikusirik, senaz galdetuko dio bere buruari haien arrakasten gakoa ez ote datzan bus-tiduraren rito bitxi horren berriztapenean. Balik orduan behin eta berriz bustiko du arkatza bere mihian, eta zirriborroei eutsiko die, eta orrialdean barrena, beren horretan, arrakasta bizkorgarri gisa ugalduko.

Marrazkia, hastapenean guztiz moldakaitza, antolatu eta txukundu egiten da piskanaka. Behatzek eskola eta nagusitasun apur bat lortzen dute; eta hurre luzaz saiatzen den marra-mordoetan nolana-hiko berezitasuna agertzen hasten da. Tresnaren lehendabiziko jabekun-

tza hori haurraren aurrerapen eta garaitzapen bat da zalantzarik gabe.

Marrazkien ezagugarria, haurren arabera, marra zut zuzena izan daiteke, edo zeharkako marra, edo lerro borobila, edo marra suge-airea; eta-ta elemento horien elkarketa bat ere. Baliteke geometria-irudiak izatea oinarri, xuxenago ala zabarrago, eta elkargainka marra-tuak.

Haurrak bere haztamuari eusten dio. Eta grofismo batzuk zehatzago berretzen baditu ere, ez da berretura horretan joera automatikorik antzeman behar. Maila horretan dagoelarik, neskatilak ez du bere kolkorako esan: banoa orain makila bat marratzera, edo suge bat, edo etxe bat, edo nahi dena. Ez. Bere eskua saiatzen du besterik gabe; eta saialdi horretatik heldu den marrazki mordo ugarian, ongienik betetzen dutenak errepertzen ditu; edo, honengatik edo hargatik, arrakasta iruditzen zaizkionak. Eta hauek besteak baino gogozago berretzen ditu. Hauxe da, bere garbitasun oparoan, haztamuzko saiabidearen gakoa: *«Ongi atera den entseguak berretzeko, eta horren ongi atera ez diren entsegu-motak baztertzeke, joera dakar haurrak; ezen berezko segurtamenaren eta ekonomiaren bilaketa bait da honetan ere eragile eta gidari»*.

Beti ere, gero eta saialdian lortu diren frutuen arabera neurtuko ditu haurrak bere indarrak eta bere erabakiak.

Goazen orain gu haurraren marrazki-une horietatik at; eta haztamuzko saiakuntzaren jarraipide nagusiei dagokienez, hemen gaingiroki baizik ikertu ez dugun

arazo interesgarria beste leku batetan sakonduko du-
gu. («Géneses» sorta ikus horri buruz).

Balik gaur arrakasta-kutsua utzi dion marrazki bat
lortu du; eta zenbait aldiz berretu eta birregin egin
du segidan, behin eta berriz bere hartan kopiatu, bere
keinuetan gero eta irmoago eta zehatzago.

Orduan, eta marrazkia ikusi ondoren, «a posteriori»
alegia, harek zerbaiten antza baduela erreparatu du.
Galdera arrunten bidez alde honetara edo hartara bul-
tzatuz gero, berehala somatuko ditu haurrak marraz-
kian etxe bat, zaldi bat edo haur bat. Eta hortik au-
rrera, ohartuz ala oharkabean, hitzez finkatu zaion ma-
rrazki ereduaren arabera moldatuko ditu xehetasunak.

Geometriazko izaki bat marratua du Balik, eman de-
zagun: «etxea da... nik etxeak egiten ditut, beti
etxeak!»... Dena etxe bihurtuko zaiol...

Eman dezagun orain borobil zerbait marratu duela,
eta ustekabean edo halabeharrezko gertaera batenga-
tik, hau esan duela: «uau-uau» da! Hortik aurrera, ma-
rrazki guztiak «uau-uau» izango dira...

Bi urte eta bost hilabete zuelarik, Bali hunkiturik
utzi zuten halako batez urmael borobil handi baten iz-
kutukiek. Etxera ondoren, borobil egoki xamar bat lor-
tu zuen arkatzez, eta gero ahal bezala eta ez oso ber-
dinzki beztu zuen borobilaren barnealdea. Urmael bat!
Harrituta utzi gintuen izendapen egoki honek. Zenbait
egunez, horretara, zirriborro guztiak urmael.

Nolapait esateko, ongi bereziturik ez dagoen ma-
rrazki bakunaren aldi honi, marrazki bikuna ohi darrai-

kio (bi elementotakoa, alegia); beti ere haztamuaren eta arrakastaren legeak baldindurik. Ez du Balik bere kolkorako esan: «Ama etxean marratzera noa». Baina egin duen marrazkia ikusita, batzutan txiripa hutsez, eta bestetan barne-egokiera harrigarrien arabera, garrasika esango du: «horra hor etxea, eta horra hor ere ama etxean» (1 ir.).

Arrakasta iruditu zaio. Orain Balik sistemakiro berretuko du eta errepikatuko, eta bere teknika piskanaka onduko: amak etxe barruan, beraz, oraingoan.

Hazmatu-bide berberak gidatzen du gizontxoan jaiotza: hastapenean bola huts, geroago, gauza bera saiatu ala, berezituz eta nortuz doaz borobil horiek, eta elemento askotako marrazki bihurtuz.

Gero *elkargainkako elementoen garaia* dator. Orrialdearen mutur batetan Balik betiko bere etxetxea marratu du, leihoan neskabila bat eta guzti. Eta, hala suertaturik, papera handia zelako, besterik ez zedukalako, eta hutsarteak ahal bezala bete behar zituelako, beste muturrean eta ustekabeen gizon-itxura bat somatu uste izan du. Haseran, beraz, mentura hutsa izan da, txiripa soila, halabehar itsua. Halaz ere, lerroak elkarren ondoan edo elkargainka horrela ikusirik, haurraren izpirituan lotura sakon batzuk jaio dira; edo, alderantziz, hitz hutsezkoak: horra hor neskabila leihoan duen etxea. Eta hona hemen neskabilarekin hasarre dagoelako, mutila etxetik aldegiten ari. (Horretan soma daitokeanez, gertaera berri batek idaroki dio azalpena, «a posteriori» edo ikusi-ondoan segurki, marrazkiari erantsiz).

Arrakasta berria, beraz. Eta orain Balik etxeak ma-

rratuko ditu eten gabe, eta etxeetatik mutilak irteten ari. Bere teknika osatuz joango da: bai alderdi grafikotik, bai azalpenaren logikatik. *Azalpen-marrazkia* sortua da (2 ir.).

Bolara batez, azalpen-marrazki hori, eta *elkargainketa grafikoen automatikaldia* elkarrekin haziko dira.

Haurrak egokiro burutzen du marrazkia; eta hau, ia bere horretan, orrialde handi batetan kopiatzen. Haseran, arrakasta aisa eta nekerik gabe lortzeko atseginez egingo du, eta buruan marrazkintza osatzeko eta hobetzeko helburuaz besterik ezer gabe. Baina, berriz ere, irudi edo marrazki atalen elkargainketa horrek pentsamendu berririk idarokitzen dio: orain loreak zaizkio.

Eta geroxeago, gaisorik dauden loreak oherakoan (3 ir.).

Aldakuntza-ilara horren urratsak, ondoko eta kide batera, menturaz orrialde berean gerta daitezke elkargainka, edo aldez aurretik inolako mordoskarik osatzeko edo biltzeko asmorik batere gabe. Ondoko orrialdea marratzeko, haurrak ez du pentsatu: bitxilorak margotzera noa, larrosoak gero, eta gero azkenik larrosak biltzera doazen neskatilak... Ez. Gertakariak eragiten dio osoki. Balik marrazki atalak inoz bakanka marratzen zituena, orain sortatan pilatzen eta berretzen ari da, horrelakoak ongi burututzat bait zeduzkan, eta neke txikiak atsegin handia ematen diotelako.

Gero, suertez eta ezustez noski, edo sortako marrazkian beharbada hutsegin duelako, lore-zangoen burua apainduta gertatu zaio (apaingarri horiek belarri

bihur zitezkean oso ondo); baina landarearen zango-puntan lore itxura hartu dute. Konturatu egin da haurra, eta bide horretatik bere marrazkia piskanaka onduz, loreak lortu ditu. Eta orduan azaltzen digu:

1. — Hauek bitxiliorak dira (giza-itxurak dirudite ha-
lere, baina ustekabeen lore gisara lerratuak).

2. — Azalpenik ez. Tarteko zirriborro saila da hau,
izenik gabea.

3. — Hauek larrosoak dira!...

Beherean, lekurik bazegoelako eta zalantzarik gabe marrazki-mota horretaz aspertzen hasia zelako, Balik beste sorta berri bat hasi zuen; hau ere automatikoa sorkuraz eta pentsatu aurrekoa: gizontxoak ilaran, or-
dura arte frutu onik ekarria zion marrabide beretik egi-
nak.

Indarrak aurreratzeko eta segurkiago arrakasta lor-
tzeko, eusten dio haurrak teknika horri, harik-eta men-
turak edo ezusteak aldakuntza berri bat erantsi duen
arte.

Eta Bali elkarketa berir honetaz mitnzo delarik (guz-
tiz ezustezkoa, beraz, berriz diot, zeren-eta orrialdea
hain zabala izan ez balitz, ez bait zen gertatuko) ger-
tatu-ondoko, a-posteriori-ko ezalpen-eraskin bat asma-
tuko du:

4. — Neskatilak lore-lila irten dira (4 ir.).

Ageri denez, a-posteriori-ko azalpena eta haur-ma-
rrazkiaren aldakuntza gidatzen duen haztamu-legea,
oso ongi ezkontzen dira. Ez du inundik ere pentsamen-

duak sortzapena zuzentzen eta finkatzen. Sortzapenetik at eta aurrera jaiotzen dira gero azalpena, alderaketak eta pentsamendua; hauek halabeharrezko aldaketaren eta aurrerapenaren ondorio normalak dira.

Gizonak, ordea, ezin hobeki eta ezin segurkiago baliatzen ditu gertatu zaizkion ezuste eta okerrera horiek; eta hauxe izan bide daiteke giza-adimenaren ezaugarri funtsezkoenetako bat. Etsenpluak ugari, eta hemen mugatu beharko geure burua.

Gizontxoek sistemazko berreturan, Balik marra-murtxo desegoki bat ezarri du iratxootako baten begian. Eta Balik azaldu: «Begira zer duen begian! Behatza jarri du gainean! Beretzat okerrago orain!» (5 ir.).

Hona hemen gizontxo berberak, eta:

1.— Ezustean, ahoa zabalegi atera zaio, eta hutsune handi hori betetzeko, nahi-ta-ez hortz luze itsusiak marratu beharko: «Naskatila pozik dago, eta farrez arida».

2.— Beste honek, berriz, oso keinu desberdina du: «Hau ez dago batere pozik: armairu bat nahi zuen, baina ez daduka».

3.— Hirugarren honetan, besoa goregi jarri diola ohartu da: «Ez dio axola beso hori goregi marraturik gertatzeak... Besoa altxa du» (6 ir.).

Marratu ondoko azalpide hauek guztiz adin horretan eguneroko ogia.

Beharrik gabeko marra bat behatzari itsatsi baldin bazaio: «Saski bat hartu du niniak».

Eta oreka beharrez antza, aldameneko irudiari ere saski bana eraman-araziko dio eskuetan (7 ir.).

Ondoko gure bi irudiak, guztiz dira erregela horren lekuko: halabeharrezko elkargainketak, ezusteko egokiera xoilak, azalpenezko lotura dakar ondotik (8 ir.).

Lehenengoan, huts grafiko batek sahets-eraskin bat ekarri du. Eta Balik azaldu: «sakela bat da».

Bigarrenean, itxura haserre eta erretxina gertatu da: «Horrek askaria nahi luke... baina oraindik ez dira laurak. Askaria poltsikuan darama».

Hirugarrena ere, gaizki atera zaio, zirriborro beltza anketaraino hedatuz: «Galtzak luzeegi ditu honek».

Irudien elkargainketak bi azalpen idaroki ditu: «Neskatilek gona dute, eta mutikoek galtzak» (4) bata; eta «gaizki orraztuta dagoen neskari egiten dio farre honek» (5) bestea (9 ir.).

Horretan Balik bi marra erantsi dizkio irudietako baten eskuari (ia ziur ustekabeen berriz), itxuraz gorraizeen antzeko zerbait. Aldamenean kopiatu egin du arrakasta bat iduritu zaion hau. Eta irudien elkargainketak ondoko lotura-azalpen hauek eman ditu :

1, 2. — Ile beltza dute.

3. — Neskatala negarrez ari da. Anaia txikiari ilea moztu nahi dio .

4. — Goraizeak ditu neskak, eta anaiari ilea moztu nahi dio... Zintzilik dagoen xerlo hori... eta bepurueta-

raino hetlzen den beste hori... Anaia txikia negarrez artean.

Batzutan haurrak bere burua marrazki bidez adierazten duela esan ohi da. Hein batez, ordea, arkuak heltzen eta biolinaren hariak kirrinkatzen saiatzen den ikasle berriak bere burua musikaren bidez agertzen edo edierazten duela esatea bezala litzake hori; edo hiztunak hizketaren eragozpenak oraindik gainditu ez dituelarik, hitzen bidez bere burua ager dezakeala esatea; alegia, bere lanabes berriaz oraindik egokiro balia ezin datekeanan, ezer adieraz dezakeala pentsatzea. Hizkuntza berrian hitzak saiatzen ditu ikasle berriak, eta zertzeladen arabera erabiltzen; baina benetako liferentziak eta mami-doiak antzeman gabe. Guri lanabes arkaikoa bezalatsu zaio: berdin erabiltzen dugu egokitasunaren aldetik arbola bat moztutzeko, lurra zulatze-ko edo iraultzeko, edo maila gisa zanpatzeko: beti us-tekabeen eta mementoko beharraren arabera, eta ba-tera egokiro eta desegokiro.

Haurra, era berean, marrazkiaren teknikez zeharo jabetu artean —eta hau ez da 7/8 urtetara arte gertatzen— ez da haztamuka baizik aurreratzen: bere saia- ketak poliki-poliki taxutuz, ongi ateratako saioak ber- rriztatuz. Pitin bat harrizko holtzean gora segurantzian jo nahi duen alpinistak bezala, hurrengo urratsa eman baino lehenago oina pausatuko duen iltzea kolpeka on- gi sarraraziz.

Bere arkatzaz oso seguru dagoenean, eta ez lehenago, haurrak bere marrazkien bidez agertuko du bere burua. Hanartean, haren teknika kamutsa da, eta eten- gabe makurtzen zaio tresna. Haurrak dena baliatzen du, hori bai; eta gorago aipatu ditugun erregelen ara-

bera egiten ditu bere marrazkiak, alegia, zeharo haztamuzko saiakuntzaren bitartez. Gero ahal duen bezala ezkontzen ditu bere hitzaldia eta bere marrazkia; baina, apur batez, marrazki horiek bere-bereak osoki zabalitu bezala ezkon-arazten. Eta honek puntu batzuk batzuk argitzen ditu:

— Marrazkiaren xehetasun batzuk, eta elemento-elkargainketa batzuk ere, era askotara eta segun-eta mentoko beharrak azaldu ahal izatea obratzen dira.

Borobil bat orrialdean, eman dezagun, bai azpila, bai urmaela, bai landa ere izan daiteke. Eta badakigu zein den erraza, *haurra margo horietako bati begira dagoelarik*, honen aldakortasun azaltzaileari eragitea. Bide batetik abiarazteko aski da hau esatea: «Zer ari da hor arkatx txikia?» Nahiz han ezer egiza-kutsukorik ez somatu, berehala arrapostua eta azalpena.

Maila horretan *haurra* ez da izkribu bat berariaz apaintzeko gauza; alegia, alde aurretik finkatutako ideia baten arabera bere marrazkizuna moldatzeko gauza. Moldiztegia darabilten gure eskoletan zortzi urtetatik beheragoko haurrek eguneroko beren izkribua edertzen dutelarik, hauen marrazkiak ez du inoiz (ez bada txiripa hutsez bederen) idatzi eta inprimatu den ideia-izkribuarekin antzik edo lotkiarik batere. Hau hala da; eta hala izaki, izaera horretaz balia daitezkean alderdi onak hartu behar dira kontutan.

Haztamuzko aldi honetan, baliteke marrazkia kontzientzia azpiko edo atzeko behar batzuen mende egotea. Baina teknikaren eskasiarengatik, azpiko edo atzeko ideia eragile hori zeharo lardaskatua azaltzen da. Alde batetik, beraz, eskasia horretatik abiaturik; eta

bestetik haurrak ondoren emango dituen azalpenen azterketatik, behar genuke ikertu haurraren marrazkia. Baina hemen aipatu baizik ez dugu egingo, bestetan sakondu behar litzakean arazo bat.

Orain Bali, bere laugarren urtearen haseran, maila honetan dago:

— Elementoak ongi berezita daduzka, eta sistema-kiro erabiltzen ditu, bai orrialde berean, bai orrialde desberdinetan.

— Elemento berriak agertzen ari dira, marrazki-atalen elkargainketaren bidez eta halabeharraz horrela gertaturik.

— A-posteroiri-ko azalpenak beti dira nagusi: bai elemento bakarrei buruz, bai elemento elkartuei buruz.

Balik ez du nabaitzen irakurtzeko ez idazteko batiere beharrik. Hitzezko azalpenak, bertan egoten eta keinuak, aski zaizkio oraingoz bere beharrei erantzuteko.

Geroago geure hezibidearen ardatzean jarriko dugun barneko adierazi-beharraren aztarnarik ez oraingoz. Eta horrengatik maila horretan ezinezkoa da marrazkia ezerean agertzapena izatea. Haztamuzko ekintza soila da: etengabe eta antzatsu, munduaren bilketara eta jabekundera abiatzen den indar gazte baten saiaketa; sortzapen-lilura; ez-deusetatik, itxurak, antzak, pentsamenduak eta sendimenduak jaio-arazteko xorarena.

Adin horretan oraindik berariazko azalpide eta adie-

razpena ez delako, ez zaio marrazkitza ezinbestean haur-arimari nagusitzen. Honen sorkarrietako bat baizik ez da. Haurrak baditu beste saiabide eta asmabide batzuk, bere indarrak lorategiko landareekin edo etxeko abereekin neurtzeko; lanabes xingleak erabil ditzake, bere eskuez forma berririk asma dezake, eta bizieraren hedakuntzan lagun gerta. Haur horrek, beraz, ez du oraindik marrazkiaz pentsatu ere egiten. Marrazkia bide erosoza zaio; ezen horretarako arkatz bat eta paper puska bat besterik ez bait da behar. Hau da, oinarrizko ekintzen ordari bikain gertatzen da; hauetan tresneria, ekaiak eta inguru laguntzailea behar direlako.

Hezieldian dagokion egiazko lekura marrazkitza bihurtzekotan hau esanik, marrazkia parte nagusia da irakurreraren eta idaztearen jabekuntzan. Hots, nahiz eskolastika zaharrak besterik pentsatu (alegia, orekarentzako eta indarrarentzako beharrezkoa dela marrazkitza) hau irakurtzen eta idazten ikasteko tresna soila da. Bi horiek, bestalde, gainbehera doaz gaur, diskoa, zinema, irratia eta telebista nagusitzen ari zaizkielako.

Balik, beraz, ez du batere beharrik bere pentsamendua marrazkiz edo idazkiz adierazteko. Irakurreraren funts sakonaren arrastorik ez daki. Ez du xemekorik ere ulertzen zertarako irakurtzen duten nagusiek, ezta zer debru irakur dezaketen onik! Batzutan gertatu zaio, hori bai, liburu bat hartu eta, asaldurik gabe, sosegu osoan, estropozorik gabe, eta ahal denik eta zinkienik... bere buruaren barruan besterik ez «irakurtzea». Irakurreraren problema honetaz, ordea, beste soluziorik izan litekeanik somatu ere gabe!

Ez irakurrera jolastzat hartu duelako. Ez da hori. Baina sinetsita dago irakurtzen dutenek horrelaxe egi-

ten dutela. Ez zaio bururatzeko era irakurleek beren kas-
koan dutenez besterik ezer paperean ikus eta azal dai-
tekeanik.

Ez gaitzela sobera harri! Zeren-eta guk geuk,
orain nagusi garenok, ez bait dugu aldi hori beti ho-
rren zeharo gainditua. Axaletik gainditu dugu, baina
nekez lortzen dugu inoiz irakurrera objetiboa. Oso gu-
txi gara benetan irakurkera hotz horretaraino helduak,
eta marrazkiaren mamiari bihozkada hutsez irizten ez
dutenak besteok bezain urri.

Eta horrela hobe, diogu guk!

Orain azalduko dugu zergatik.

MARRAZKITIK IDAZKETARA

Haztamuzko saiakuntzaren goraldi etengabe horretan, zalantzarik ez du uzten inguramenduak duen eragin nagusia. Baina antzinako heziketa bera funtsean eragin huts ez ote zen, eragin larriagoa hain zuzen, bere pentsakera, bere keinuak, bere erritmoak eta bere legeak onarrarazten bait zituen?

Bali eskolastikaren erakaspide hertsietatik at gorde dugulako, ez dugu hargatik ere Robinson berri baten eran eta mundutik kanpo bizi-arazteko asmorik izan; ezta haren heziketa inolaz bortxatzekorik. Baina, hau bai, beste modu desberdin batetara hartzen dugu parte haren bizian, hari ahalik eta eredurik osoenak erakutsiz, eta haurraren sortu-beharrari, adierazi-beharrari eta harreman-nahiari erantzun nahiz, lanabes egoiak ematen. Lehendabizikorik, bere haztamuzko saiakuntza ezkartuz «laguntzen» diogu haurrari; eta bere bizimodua taxutuz geroago.

Jabekuntzaren urratsak hemen xeheki azaldu arren, ez zaigu laguntza tekniko horren moduak bidenabar ematen ahantziko. Horietakek dira, nik uste, haurren heziketan eta jabekuntzan guk ekarri dugun funtsezkoena.

Bihur gaitezen harira orain.

Oso aixa idazten dudala erreparatu du Balik, gauzarik oldezkoena egiten ari bait nintzen. Irakurketari buruz bezala, ordea, ez du honek ezertxo ere harrituko.

Irakurtzea erraza denez gero, segur da idaztea ez dela zailago (10 ir.).

Begira zazu 10-gn. irudia. Bali-ren saiakuntzaren urrats gaudelarik, hauxe duzu bereziena eta ohargarriena: marrazki-banako mordo bat, beti berbera, sistematikoki berretuta eta errepikatuta agertzen dela; eta molde bereko lerrokada luzetan pilatuta.

1.— Neskantilak eskolara bidean: hamaiketako baina daramate zorroan

2.— Horra hor bide ertzeko arbolak.

3.— Haurrak ez du orain eskolara sartu nahi: zorroa galdu zaio.

Hori guztia Balik hitzez a-posteriori-ko azalpen horietako baten bidez adierazi ez-eziz, arkatzez azkar zիրորոտuz ere «idatzi» egin digu. Arkatzaren erabilkeran badago keinuaren eskola apur bat, baina izkribuan ez da oraindik letra-liferentziarik batere ikusten.

Zuzenbideak idazten ditudanean, hiriaren izena azpi-marratzen dudala ohartu da Bali; eta neure sinaturan era berean izena azpimarratu egin ohi dudala. Itxura denez, idazketaren oso xehetasun inportantea iruditu zaio hau. Oharketa honek, teknika berri baten bila bultzatu du, eta entsegu horretan ari izan da zenbait astez. Orain, orrialdea bukatu duenean, sinatu egingen du, eta gero azpimarratu (11 ir.).

Bali, beraz, sinatzen hasia da.

Eta, hortik aurrera, ongi lortu dituen grafismoen errepikaren legeari eutsiz, gauza bera idazten du birretan, hirutan, anitzetan; eta beti azpimarratuz, noski.

Orain, izkribu berberak, azpimarraturik eta berreginik, marrazkiaren erdialdea hatru du, eta ez behereko xoko apal bat bakarrik, eraskin gisa (13 ir.).

Beste arrakasta-bide batzuk lortu, eta teknika hau alferritako gertatu arte, ez du idazkera hori alde batera utziko. Gero beste idatz-sinu batzuk agertuko dira, ia-ia berezitasunik batere gabeak haseran, baina dudarik gabe idazketa-entsegu zorrotzago.

Ondoko irudietan, idazketaren jabekuntza geldi hori urraska jarrai dezakegu (14 ir.).

Halako batez lehendabiziko sinu berezitua agertzen ikusten da: gurutze bat, «t»ren iduriketa. Lehenengo arrakasta da, eta aisa berregin eta errepika daiteke. Betirako garaitzapen bihurtuko zaio hau haurrari; maila bat igo duke eta hori abiaburu, orain beste bilketaren bila abiatuko. Beti 15 gn. irudi horretan, elkar-

gainako marrazkietarako bihurrera ageri da, baina orain beste gauza bat behar du.

Marrazkia bere buruz izan daiteke aski. Edertasuna eta bizia sortzen ditu, edo biziaren irudia bederen. Sortzapen liluragarria da, batez ere koloreak lagun dituenean.

Izkribuak, berriz, bere buruz zirriborro nutsa da, eta ez du senazko mamirik ez edertasun erakarlerik. Ez du baliorik hartzen, beraz, lanabes gisa eta desirak, ideiak eta aginduak adierazteko tresna den aldetik baik. Desira, ideia eta agindu horiek, ordea, sentitu egin behar dira aurrenik; eta zuzenean azaltzeko modurik ezean, edo bestelako bide pratikoagoez (abotsez, kei-nuz edo iduriketaz) ezin lorturik, orduantxe senti daiteke adierazpide horretara jotzeko beharra.

Baldintza funtsezko horretxen iraupenak bultzatu du honeraino haztamu-bidea; alegia, baliotasunak eta praktikotasunak ez bestek. Pratikoa izan ahal izateak ematen du bultzada. Berezkoa ez den barne-agerpide hau funtsatzeko, beraz, haren beharra eta baliotasuna idarokitzen dituen bide bat bilatu behar da, akuilu eztenkatzaile bat. Hein batez bederen eskola zaharrak funtsabide eragile hori aurkitzen jakin ez zuelako, kanpotik eta bortxaz (edo jokoz) erakatsi behar izan du idazketaren teknika; honen behar gorririk haurrak nabaitzen ez zuelako. Aitor dugu, bestalde, funtsabide hori orduan aurkitzea ezinezkoa zela; alegia, gizonak (eta ez orain dela denbora luzeegia, ez pentsa) ia sekulan urrutiko gizonekin harremanik izateko aukerarik ez zuelako. Bizitzaren eremua orduan lan-lekuaren inguruan zen; eta ahozko hitza aski zen gizonen arteko harremanetarako: bai pertsonagandik pertsonagana, bai belau-

netik belaunera. Kaso larrietan, pertsona bera joaten zen urruti hartaraino; eta han, buruz buru, htizez eta keinuz, bere pentsamentua azaltzen zuen.

Alde honetatik zeharo aldatu dira denborak. Mekanika-aurkikundeek ugaltu egin dituzte gizonen leku-aldaerak, eta urrutirako elkarpedeak beharrezko egin. Gizarteak berak lagundu du helburu horretaruntz, praktikotasun eta bizi-arazo bat somatu bait du. Posta-zerbitzu azkar bat antolatu du, idazketaren eta moldiztegiaren baliakera hobetu; eta gero fotografiaz, telegrafiaz eta telefonoz, eta geroago orain irratiaz, zinemaz, diskoez eta telebistaz, elkarganako hurbilera horretaruntz bultzatu du.

Eskola, berriz, izuti, hastapenetako mailan gelditu da, bide berri horiek erabiltzeko uzkur, beti bere burura bilduta, horrela gaurko zientziak obratu dituen elkarpede azkar horiek funsgabeak bait litzazkion.

Gauzak horretan zeudeno, berriz diogu, ezinezkoak ziren idazketaren funtsabideak oro. Hemen azaltzen dugun saiakuntza, hortaz, berria da nahi-ta-ez, azalpede eta harreman-bide berrien sarreraren ondorio bait da: moldiztegia, eskolako kasetak eta kidekuntzak batez ere.

Eskolako lehenengo maila honi dagokionez, kidekuntza da idaztearen funtsabiderik onena eta praktikoa. Teknikaren aldetik (hau ez ahantz) eskolako moldiztegia eta kasetak ditu oinarritzat.

Gure Eskola hiru zutarriren gainean dago beste eskolarekin kidegurik: eskola-kasetan, gutunen, eta operipardelen bidaltzearen bidez. Urrutirako harreman-gi-

ro honetan murgildurik bizi da Bali. Gutunak hartzen ditu, eta horiekin fotoak eta jostailuak ere bai. Orduan konprenitzen du (senditzen, hobeki esateko) idazteak eta irakurtzeak zertarako balio duten. Gu maiz idazten ikusteak, bestetik, sendotu egiten du sendimendu hori; batez ere gure pozak, gure tristurak, gure desirak, amona, amabitxi edo lehengusinarekiko gure eskabi-deak, daramazkiten gutun-zorroak Balik berak tristatu eta hesten dituenean. Bali-gan, beraz, eskola eta famelia gutuneria-nahi hori lantzen dugu. Behar horrek eragingo dio haztamuzko saiakuntzari, eta horrela idazketa, adar gisa bereziko da bere aldetik.

Bultzada horrek eraginda, hortaz —eta hau kontutan hartzea ezin inportanteagoa da— Balik bere lehenengo gutunak idatzi ditu marrazkirik gabe: honek orain ez du haren helburu berbera, ezta barne-dei edo xede berbera ere.

Haurrak ez du idatz-ariketarik egiten; haur ttipiak hizketa edo ibilera-ariketarik egiten ez duen bezalaxe. Orain amonari edo amabitxiari idazten dio, haurra bere inguruan eragin bat lortzekotan mintzatzen, edo go-goan hautatu duen lekura iristekotan ibiltzen den bezala.

Hona hemen berezirik agertu diren lehendabiziko letra edo izkiak, 4 urte eta hiru hilabetez idatziak. Bi gauza ohartu behar dira batera: lehenengo ikaspenen edo jabetzapenen berretura mekanikoa (azpimarratutako sinatura, «t» gurutzea); eta piskanaka, eta osotasunean dena harturik, marrazkiak egiten duen atal-be-rezkuntza jarraikia (17 ir.).

4 urte eta 4 hilabete duelarik, Balik bere lehengusinari idatzi dio. Horra hor gutun horietako bat.

Bi dokumento hauen azterketa arretatsuaren bidez, haztamu-bideak ekarri dituen baitazpadako aurrerapen batzuk ikusten ditugu:

— Marrak ia-ia berdintsuak eta erregularrak dira, beti ere orriaren ertzean banda zuri bat uzten dutelarik (ikus 16 ir.), eskierki iduriketa bidez ikasia.

— Grafismo oso horretan, gero eta garbikiago, lehenengo ikur edo sinu berezituak agertzen dira: «t», «o», «a», «e» eta «1» ilunpetatik irten, eta gero eta maizago sortzen dira haztamuzko saiakuntza gidatzen duten legeen arabera.

Idazketa berezituaren maila honetan, bost urteen inguruan beraz, Balik behin eta betirako berezita darduzka bi ekintzak: marrazkitza eta idazketa; eta hortaz, idazketa soilaren teknikaz arduratzen hasten da. Honetan senazko edo oldezko grafismo konturik ez dagoela erreparatua du, eta badagoela aldiz zenbait arau, eta idurikatu egin behar diren formak.

Hortik aurrera, baina ez lehenago, gogoz hartuko du klasean elkarrekin idazten den izkribua, eta kopiatzen saiatuko! Liburu edo kaseta batetako hizkiak edo hitzak ere bere kabuz kopiatuko ditu.

Zenbait egunez, guztiz berezita, lumeroen kopiaketaz arduratuko da: itxura geometrikoagoak, eta hizkiak bezain gutxi-ondorio iruditzen zaizkio.

Oldezko «ariketa» hauen eboluzioa segituko dugu

aurrenik; hobeki esateko, betebehar gisa eginik ez-baina gure funtsabide azkarrak eragindako sortzapenen aldakuntzak eta gorabeherak.

18 gn. *irudian* idazketarekin lotura hestuagoak mamitu ondoren, teknikaz ongi jabetzeko kopiatzen du Balik. Hau guztia gauza ageria da. Haurtxo ttipia funtsatutako dagoen saiaketa hutsean ari, eskailera-ko mailetan gora eta behera ibiltzen den bezala.

19 gn. *irudian*, dokumento bikaina da gure frogantzamamitzeko:

— Balik bere eskola, bere trebetasuna alegia, saiatzen du; eta hemen, lehenago ere ongi lortu dituen sinuak egiten ditu, besterik gabe: 2-4-1-0-8 (barren eta borobilen elkarketa ximple denak).

— Lerroak azpimarraturik daude: oraindik ere baztertu ez dituen idazkeren aztarna.

— Balik bere sinatura berregin du, eta bere arrakastaren osotasunak aurretik egin dituzkean ariketen ugaria idarokitzen du. Sinatura bera ere azpimarraturik dago.

— Sinaturaren grafismoa —ohar honi— oso hurbil dago marrazkitik. Sinuak ez dira zurrun eta bereziak, analisia oinarri duen idazkera batetan bezala; baina malgu eta lotuak, sintesizko antolamendu-sorta batetan bezala.

— Badirudi, azkenekorik, gauza bitxia dela haurrak bere sinatura berretzeko beharra; sinatura, nahasketa

goxo eta mamitsu gisa, marrazkiaren eta idazketaren erdian bait dago.

Horretan badago, dudarik gabe, fantesiaz besterik ere; etendurarik gabeko aldakuntza baten adigarri edo argigarri oharkabe bat, hain zuzen.

20 gn. irudian, bere «ariketei» ekin die Balik. Hala suertatu zaizkion hitzak kopiatu ditu. Grafismo hau oso jarraikia eta lotua da, eta oraindik marrazkitik hurbil dago.

HITZEN MAMIA

Eta horra hor beste maila bat igota. Orain Bali bere seigarren urtearen haseran dago.

Haztamuzko bere saiakuntza geldian barrena, ongi xamar jabetu da bere idazkeraz; eta kopiatzen dituen hitzik gehienak, segurki, azkarki eta aski zehazki ere lortzen ditu.

Orduan, beraz, lumaren nagusitasun-maila horretara iritsitakoan, baina ez lehenago, idazkiaren eta hitzaren artean lotkia bat agertzen da haurraren izpirituan. Jakina, lotkia horiek hitz arruntenen artean sortzen dira aurrenik: adiskideen izenetan, esate baterako, Baliri dagokionez.

Orain bost urte t'erdi du. Haurrak marratzen ditu. Balik. Itxuraz osoago eta borobilsuago dirudi haren marrazkiak; eta elkargainketaren eta ondoko azalpenen

urratsa, atzean utzia du betirako. Orain antolaketa da haren marrazkia; hau da, marrazki--atal berezitu eta desberdinen mordo bat, atalok elkarrekiko ongi taxutuak, horrela jakinaren gainean edo oharkabean hautatu den helburu batera iristeko.

Pratikan, halere, ondorio hori ez da beti haurrak lortu nahi zukean berbera. Maila batetik bestera, jakina, piskanaka egin ohi da. Haztamu-bidetik hor ari da oraindik izpiritua, halere, eta Balik batzutan marrazkia bukatu baino lehenago, aldatu egiten du bere asmoa, bere xedea; edo lortu dituen ondorio onen arabera, marrazkiaren azalpena ere aldatzen (horra hor a-posteriori edo ondoko azalpenen arrastoa). Oro har, halere, azalpena ez da hemendik aurrera ondorikakoa izaten. Marrazkia azalpide eta hizkuntza bihurtua da.

Hizkuntza berri hau eta idazkuntzaren lehenengo pausuak zeharo lotzen ditu Balik.

21 gn. irudian, ezagutzen duen giro batetan haur batzuk pasean ari marratu ditu. Norki bakoitzaren azpian *izena* idatzi du. Dena dela, ez marrazkiaren mamia emendatzeko, baina marrazkitzan eta idazkuntzan lortu dituen ikaspenak elkartzeko, bildu berria duen tresna berria baliatzeko.

Marrazkietan, horrela, elkaturik ala berex, ezagutzen dituen izenak kopiatzen saiatuko da: Aita, Ama, Amona, Max, Foune, Pigeon, Germaine eta abar.

Hitz batzuk behar den gisan esaten ikasi duen haurrak bezalaxe, gero behin eta berriz esanak eta birresanak, Balik ere ahal duen hobekienik baliatzen ditu bere lehendabiziko ikaspenak. Haztamu-bidearen legeak

nahi duen eran, egokiro obratu eta burutu diren entseguak, segurantzia eta arrakasta beti gidari, eten gabe errepikatu behar dira. Luzaroan, beraz, ongi lortu dituen lehendabiziko hitz horiek, izkribu guztien ardatza eta kuntza bihurtuko dira; baina piskanaka gero, hiztegia aberastuz joan ala, bazterturik geldituko dira, edo gutxiagotan erabiliak bederen.

Honetan guztian badaude bi joera: iraganari buruz finkaera eta iraupena, eta etorkizunari buruz bultzada ausarta.

Esatera herrikoi batek biziki ongi bildu du hitz guztitara joera sakon hori: «Ez eskua laxa oinaz ikutu arte». Bere frogak paseak dituen zerbait hobez ziur egon arte, haurrak ez ditu alde batera uzten bildu eta irabazi dituenak, bere ganbiamenduetan barrena finkaturik dadukana, edo indarra ematen dioten tresnak eta teknikak. Teknika berriaz guztiz seguru egotean, berriaz, bai: gainditua izan den jokabidea osoki baztertu arte ahaztutzen du ezari-ezarian.

Baserritarra ez da behin ere izaten kotxea erosten lehenengoetakoa. Baditu bere gurdia eta bere mandoa. Honek bestalde lan-mota askotan laguntzen du. Baina trabak ere begien aurrean ditu beti. Eta horrela gizonaren bizian kotxea eguneroko ogia eta behar gorria bihurtu artean, ez dira garraiobide zahar atzeratuak arras bazterturik geldituko.

Gisa berean haurra ere: izugarritzko zuhurtasunaz, eta batera (gauzaren bitxia!) ausardia harrigarriaz. Horra hor, hobeki azaltzeko, oreka beharrez elkar balantzatzen duten bi eragileak. Ondotik gertatuko den bilakaeran barrena, lehendabiziko jabekuntzei eten gabe

jabekuntza berriak erasten zaizkiela ikusiko dugu; baita haiekin nola batzen diren, edo hein batez logikaren arabera nola iratxekitzen zaizkien. Irabazketa horiek, halere, baita beren baliotasuna jadanik agertzen ez delarik ere, iraun egin ohi dute; aski soineko berri izan artean baztertu eta bota nahi ez diren soineko zahar horiek iraun ohi duten bezala: hain gara haietara jarriak, hain zaizkio gure gorputzari ederki egokitzen, non ez bait ditugu tamalez baizik baztertzen; eta orduan ere, lan zail edo zikinatarakoan, atseginez jazten bait ditugu berriz. Baita zapien pilora botata ere, ez bide dute hil nahi.

22 gn. *irudian*, aldakuntza horren moldeak oso be-reziak dira:

— hizkiak (letrak) elkarren ondotik idatziak (erre-pika grafiko hau automatikoa da);

— izkribuan zehar, izen ezagunak ageri: Aita, Ama, Ama, Aita, Amona, Dédé, Luc, Pigeon, Max, Dédé, eta abar;

— ikasi berriak diren hitz edo sinuak han hemen-ka sarturik (horra hor etorkizuna orain arteko bilketa-rik itsatsita): «et», «lit», «9 na».

— «?» ikurrak, batez ere, azken-azkenean ikasia di-rudi; eta hainbestearino liluratzen du Bali, itxura de-nez, bere sinatura inguratzekotan bi aldiz idatzi duela;

— dena argitzekotan, marrazki zenbait erantsi dio izkribuari (iraganetik datorren kutsua, edo gaurko iz-kribu ederdunaren aztarna).

IRAKURRI BAINO LEHENAGO, GEURE BURUA AZALDU

Horretan gaituzu. Ikaskairik gabe, sortzeko eta in-
dartzeko gogoak eragin duen oharmenezko saiakuntza
soilaz, eta geroago kanpotik txertatutako funtsabidek
akuilatuta, haurra idazketa ernai eta ohartuaren ata-
riraino heldu da. Idazpide hauen bidez, marrazkiaren
edo hizkuntzaren bidez bezala, bere burua adierazten
du haurrak: oarindik erdipurdi bakarrik. Baina eskuetan
hartu du tresna; eta aski izango du aurrerakoan era-
biltzen ohitutzea.

Geldi gaitezen hemen lipar batez; eta jadanik bi-
ziak beren muinetan eta inguruetan dirakiela sendi-
tzen ez dutenen galdera kezkatu batzuk erantzun ditza-
gun. Ohar batzuk aski, nik uste.

Balik orain sei urte du, eta bakanka baizik ez da
klasera agertzen. Aipatu ditugun hitz horiez besterik

ez daki oraindik idazten. Eskoletako ikasle arrunten arabera, hortaz, ez dago aurreraturik. Aitzitik, eta itxura denez, oso atzeratuta dator hain zuzen. Hobe esateko, ezin daitezke bi hezibide horiek aldera, bi teknika guttiz desberdinak direlako.

Aita temati batek, (loroak bere lelokeriak xirripan isurtzen dituen bezala), hitz batzuk errepikarazten dion bere haurra, normalki hazi, eta hitzik behar bezala esaten ez dakien beste haur bat baino aurreratuago da goela proposatzea litzake.

Eskola zaharrean, egiazki, oso goiztik erakartzen dira haurrak letrak idurikatzen, hitzak eta esaldiak kopiatzen; baina itxuraz jabetzen dira egiten dutenaz, ez funtsez. Balik, berriz, erdizka bederen ikasi duena, izanari, nortasunari berari itsatsita gelditzen zaio, eta ez da hartatik inoiz bereziko.

Baliteke halere, oro har, idazketaren ikaspide honetatik, atzerapena gertatzea. Gaurko Eskola, darabilzkiezen tekniken desegokitasunarengatik hain zuzen, goiztar gertatzen diren helburutara jotzen du. Hots horiek heziketa apropos batetan ez dute konda. Erbiaren eta apo-armatuaren ipuina bururatzen zaigu berriro. Azkenean ondorioak bait du munta; alegia, norkuntzaren arabera idazketaren jabetasunak. Eta horri buruz, sine-tsita egon, lasai gaude.

Badugu, alderantziz, oraintxe aldeko geure kontuan marka dezakegun hobari bat, garrantzi handikoa gure ustez: erakaspideen haserako okerrak direla bide, Eskola zaharrak bortxatu egin behar du haurra idaztera, irakurtzera eta lanegitera. Jainkoak daki erakaspenean hori lantsua denetz! Hain zuzen ere, erakasleek ihes egi-

ten diete horren lan txarra dagokien lehenengo mailako ikastaroei. Hots, lehendabiziko ikasien adin xoragarri eta hunkigarri horretantxe nahi lukete amek haurra etxen atxiki!

Berezko erakaspideak baliatzen duten haurrentzat eta Bali-rentzat, ez dago ikaskairik, ez betebeharririk, ez etxerako ariketarik eta ikaskizunik. Lehenengo garra-sitik hizkuntza osatura arte goruntz doan haur ttikia-rentzako, horrelakorik deusik ez.

Aski dira giro laguntzailea eta haztamuzko saiakuntza. Bere azalpideaz hobeki jabetzeko, Balik ez du klaserara beharrik ere.

Gutun asko idatzi nahi du Balik. Orain ez zaizkio aski lehenagoko bere marrazkiak: hauen akatsez konturatu da. Bidali nahi dituen gutunak idaztarazten ditu orduan esanera, eta arretaz gero kopiatzen, ariketa bikaina bait da bestalde. Baina nork berak baino hobeki inork inor zerbitzitzen ez duelako, berehala nabaituko du sekretaririk gabe moldatzeko gogoia, eta bere gutunak bere buruz idazteko.

Sekula ez du jasan idazkuntzaren ikaskairik batere. Proposatzen zaizkion ereduak marrazten ditu: oso erdipurdi haseran, baina gero eta hobeto.

Moldiztegi-kajaren ingurutik ibilki, tarteak beteaz eta molditzekin jolastuaz, hitzekin jolastuz, alfabetoaren hizki guztien izena ikasi du Balik.

Ikaspen hauen azkarra eta segurua, haurra mogitzen den eta jokatzen duen inguramenduko aberastasunaren mendeandade. «Lagungarri» ez den famelia batetan

(hitzegiten gutxitan entzuten delako, edo gaizki mintzatzan delako) geldiroago eta okerrago ikasiko du haurrak hitzegiten, besteak beste, jende landua eta ikasia, eta hizkuntza zehatza eta garbia darabilen familia «laguntzaile» batetan bizi bada baino. Ez dugu gutxien beraz Eskolaren heziketa-lana. Ez horixe! Uste dugu, ordea, eginkizun hori gaizki ulertu ohi dela, kaltegarri ere gerta daitekeela; eta horregatik, hemen gogorragorik ez esateko, tamalez ziturik eman gabe erabiltzen dela.

Hobeto egin nahi dugu, hezibidea onduz, tresnak hobetuz, eta teknikak osatuz.

Arte horretan Balik ez daki irakurtzen, eta nahi ere ez du. Badira horretan bi arrazoin, nik uste: besteen pentsaerak ez duela oraindik batere kilikatzen, aski zaiola bere biziera. Ez nik dakita sorkurazko zein berekoikeriarengatik; baina besteen batimenduaz benetan arduratzen hasi baino lehenago, (zer eginik ugari badielako), bere burua moldatzen. Gutunak dira halere bide berri horietarako lehenengo antena. Gutuneria hori irakurri-beharrak ekarriko du irakurpena. Baina, bigarren arrazoina, eta baliokoa: Bali gaitzen duen teknika bat da irakurrera, eta honek bildurtu egiten du pitin bat gure neskatila. Bizikletan ibiltzen ez dakien haurra bezala, abiatzeko bildur izaten bait da. Hortaz, errezebitzen dituen gutunak irakurrarazten ditu Balik.

Zalantzarik gabe, sistemazko ikaskaien bidez, sei urteak bete baino lehenago ikas-arazten ditu Eskola zaharrak irakurreraren hastapenak Honetarako ikaskaiak behar dira; alegia, betebeharra eta menegitea. Jokabide bizigarrien eta jokoaren bidez ikaskaien eta betebeharren arriskuak baztertzea lortzen ez bada behintzat. Baina,

betiko leloa berriz ere: txit goiz eta habaila guztian iritea ez da aski. Helburua da konda, eta haurraren egoera memento horretan.

Puntu hau ikertzea falta zaigu, beraz: ia helburu horri buruz, Bali-ren heziketa berezkoa ez ote litzakean denetan hobe eta seguruago izango.

Galdera horri erantzungo dio gure azterketak. Noski, gure oharrak kontrolatu beharko dira, eta gure teknika berriak frogatu. Orain arte mesprextatu izan diren logika-bideen aukerak ikertu dituzkean eskolatzaillearen eginkizuna izango da hori.

Pedagogiaren tradizioaz bestalde, idazketa eta irakurrera ez dira, izan, batere beharrezkoak ikaslearen hedakunde normalari buruz. Eta beharrezkoak ez izaki, kaltegarri ere izan daitezke aisa, berezko hazkundera eta ikaspidea nahasiz eta lardaskatuz.

Gaurko eskolak erdizka bederen teknika horiek erakasteko dakarren kezka berria, hortik heldu da; alegia, ohiko erakaspideen eta tresneriaren eskasiatik. Ikastaldeak irakurtzen eta ikasten dakien egunean, erakasleak salbatutzat jotzen du bere burua —bere burua, bai; ez ikasleak— orduz gerotzik ariketak eman dizaizkiekealako, eta ikaskaiak biharamunean esan-arazten; eskolako lana «jardun» horietara ez beste ezertara bilduko bait litzan. Ikaspen-maila horretara aurretik, ez dakite benetan maisuak edo andereñoak hurrei nolatan edo zertan lan eragin... «hezle» edo «eskolatzaille» izen handigurakoaz bataiatu diren joko-mota horien bidez jolaz-arazten ez dituen ber...

Baina eskolan —eta ikas-maila guztietan gauza be-
ra— haurren beharren arabera lan aproposa dakarten
teknikak eta tresnak sartzen baditugu, orduan idazkun-
tza-irakurreraren jabekuntzaz sortu ohi den arazoa ez
da horren gordinki agertuko. Kabiatic txorikumeak goi-
zegi irten-arazi nahita, ez diegu desgaraiari alegiazko
hegalik erantsiko. Ez luke balioko. Lumak lasai ager-
tzera eta hedatzera utziko ditugu; segurki bait dakigu
garai egokian, barezko eta indartsu, dudarik gabe he-
galdatuko direla txoritxuok.

IDAZKERAREN HOBEKUNTZA

Bizian oinarrituta dagoen gure tekniken bereziena hauxe da: baliatzen dituen haurrek beti ere hobeki, azkarrago, eta aurrerago joan nahi izaten duela. Sorkurazko joera hori gabe aurrerapenik ez legoke gizonarengan. Hots, antzinako Eskolak ito arte debekatzen zuten berezko joera hori; eta hauxe da haren kontra aipa daitekean arbuiorik larriena.

Balik badaki bere inguruko izenak idazten, baina hau ez zaio aski. Gutunak esanera idatzarazi ondoren, gero letrak banaka kopiatu beharra alferrikako menpe tasuna iruditzen zaio, eta morroinkeria apur bat ere bai. Bera baino zaharrago diren lagunek beren buruz iciazten dituzte beren gutunak; eta Balik ere idazkuntza loturagabe hori hirrikitzen ari da.

Honetarako, bere eskuarrean dituen tresnak eta idazpideak erabiltzen ditu, baina beti haztamuzko saiakun-

tzaren helburuen arabera. Tresna eta idazpide horiek zehazki ikertuko ditugu hemen. Baina ikertzapen horren ondorioak ez ditugu laisterregi lege funtsezkotzat aurkeztuko. Ezen baliteke bestelako baldintza-girotan gertatutako beste haur batzuek, nahiz lerro paralelo batetik abiaturik, xehetasunetan guztiz berdin ez jokatzea.

Gauza bat erakutsi nahi dugu bakarrik: oro har eta funtsean, zernahi girotan eta inguramendutan gertatua-gatik ere, haur guztiek segitzen dutela aurrerapen eta jabekuntza maila-ilara berbera: haztamuzko seiakuntza; ekonomiaren, segurantziaren eta indarraren helburuen arabera ongi burututako entsegun errepika; behar nabarmena, halere, lurra ikutu arte eskuak ez laxatzea; eta, beti ere, jaiki eta nagusitu nahi duen biziaren zerbitzutan, zuhertasuna, eta honekin batera ausardia ugari.

Ikus dezagun beraz nola jokatu duen eta nola bilakatu den Bali.

Gutunetan, zenbait hitz eta esaera behin eta berriz gertatzen dela ohartu da. Horiek idazten ikasi du, eta gero horretan gelditu da luzaroan: alegia, automatikoki erabili ditu bere izkribuetan, lehenago bere sinatura azpimarratua luzaroan errepikatu zuen bezala. Ikasi duen hitz berria, atsegin zaion esaldia, edo inguruan arrakasta biltzen duen berba hizkuntza-hastapen guztietan eta mintzaldi guztietan birresaten dituen haurrak bezalaxe jokatzen du orain Balik.

Honek ere zerbait ikasi du. Hau hasteko: *Aitatxo maitea*, *Amatxo maitea*, *Amonatxo maitea*, *Amabitxi maitea*.

Eta amaïetarako hau: *Muxu handi handi bat —Balik.*

Hau ez da aski halere gutun oso bat betetzeko; eta horretarako, bien arteko betegarri, Balik ezagutzen dituen izenak idazten ditu.

Gutziz klasikoa da horri buruz ondoko gutun hau (23 ir.).

Abiada emana da, halere. Balik badaki orain gutun osoa bere buruz idazten; eta gutun horretan zerbait adierazten da, eta ulertu egin daiteke.

Ez da hastapen zarpail horretan geratuko, jakina; eta bere idazkiak hobetzen saiatuko da. Noski, ez ditu berak idaz-teknikak asmatuko: teknika horiek inguramenduak emango dizkio. Iduriketaren moldeak, berriz, eskainitako aukeren arabera aldatzen dira. Ahalik eta gehienik eskaintzea, gure kontu.

Bere idaz-teknika ontzeko bideak saiatzen ditu Balik; haurra bere ondoko giroan hizkuntza aberasten eta osatzen saiatzen den bezalaxe.

Inolako ikaskairik gabe, arbelean idatzitako izkribua (gero moldegintza-lerro bihurtua) eta azaldu duen ideia alderatuz, moldizkiak erabiliz eta taxutuz; inprimatutako orria edertuz (denak Bali-rentzako mamitsu) ia hizki edo letra guztien izena ikasia du Balik. Baina erabiltzen dituen moduari begiratzuz, hau ageri da: «c», «que», «ke» eta «cuel» berdin zaizkiola; «se» idazteko, aski zaiola «s» bat; «sé» etengabe erabiltzen duela «c'était», «céder» edo «casser» idazteko. Hein batez, hizkuntzaren razionalizazio bat egiten du; filologilari-rik zentzudunenak asmo horretxek zirikatu ditu-ta.

Sinuen jabekuntza lortu du Balik: «que, de, r, ne, né, pe», eta abar... Ematen dituen hitzak idazteko tresneria badaduka aski, eta letra bihurtzen ere badaki. Ohar zaitez puntu batez: honetaraz gero, kakoa hori duela eta bildua duela. Aurrerakoan haurrak bere ika-
siak zorrotzu besterik ez du egingo. Balik hasteko, so-
nutasunaren arabera deritzan lerroan, idatzi egingo di-
tu alfabetoaren hizkiak: (ikus ir. 24).

Sistema erraztua horren barruan ere, erraztuegia delako hain zuzen, ez da dena osoki burutzen. «Il y avait» idazteko, esate baterako ,Balik «ilichvé» idaz-
ten du; eta «de la tarte»ren ordez, «de la tate».

Funtsezko aurkikunde bat egin du halere. Hortik au-
rrera bidea zabal. *Orain badaki idazten*. Besteri adie-
razi nahi dizkion pentsamentuak paperera itzultzen ba-
daki. Eta, benetan, haren gutunak irakurri, eta ulertu
egin ditzakegu; eta ez nekezago osagile batzuen or-
donantzak edo Ch. Maurras-en esku-izkribu zabarrak
baino.

Geure heziketaren eragile jarri dugun aurrerapen
eta hobekuntza-nahiak haurra bultzatuko ez balu, elkar-
bide maila honetan geldituko litzake beharbada. Eta,
egia aitortzeko, atzeratu batzuek ez dute aurrerago jo-
tzen, mintzairan ere behereko mailan gelditzen diren
bezala. *Baina haur normalak ez du sekula onartzen er-
dipurdiko maila hori*.

Haztamuka, bere marrazkiak eta idazkiak, eta be-
gien aurrean daduzkan esku-izkribuak eta inprimakiak
ziplo alderatuz, Balik bere ahuleziak eta bere eskasiak
erreparatzen ditu. Nahiz kontzientziaz edo logikaz hau
ez jakin, miresten dituen izkribuokin berdintasun eta

adostasun osorik ez dagoela senditzen du; eta, bere eginahalak azaldu ere gabe, bere izaerak behar dituen oreka, bakea eta indarra lortzekotan, jokatzera joango da, ekitera. Hauxe senditzen du haurrak ere zerbaitetan garaitzaile irten denean, zerbaitetan helbururaino heldu denean.

Hiztun berria den haurtxoak bere toteltasunean soinu batzuk lortu dituenean, eta mamia badutela ohar-tu (alegia, nahiz handienen hotsekin antz txikia izan —nana, ñaña, titi, lolo, eta abar— aitak eta amak sinu horiek ulertzen dituztela —arrakasta-sendimendua darama barruan: lortu egin du.

Bai —diokete pedagogilari atzerakoiek—. Baina, pausu horiek askitzat emanik haurrak aurrerago jo nahi ez badu? Soinez normalak, bizi guztian lauroinka ibili diren haurrak ikusiak ditugu. Zergatik hala? Hazkunde-memento batetan, erdipurdi horretan kokatu zirelako; eta nahiz ibilkera hura traketsa eta motza iruditu, lekuz aldatzeko bederen aski izanik, horretan gelditu ziren. Zer esango, era berean, hizkuntza bi urtetako haurren mailan atxiki duten gizon nagusiez, nahiz inguruan hizkuntza ongi mintzatua izan?

Bali ere bere hutsez konturatzen da. Hobeki esateko, senditu egiten ditu, huts horiek erdi ilunpetan; eta idazkera egokia lortzekotan, hutsok zuzentzen saiatuko da. Zenbat-eta egokiago eta laguntzaileago izan inguramendua, hanbat-eta segurkiago eta fitetzago garaituko du haurrak.

Eragozpen bat ager daiteke halere irakurlearen izpirituan: haurra horrela bere gisara, eta haztamu-saiketa horiek guztiak nekez egitera utzi beharrean, zen-

bait ikaskai eman balekio; idazkuntzaren oinarriak be-
deren erakats balekizkio; sistemazko errepikentzako
eta kopientzako hitz-lerrokada luzeago bat eskain bale-
kio; ez ote lezake denbora bikaina irabaz, beharrez-
ko ez den anitz hutsegin bidenabar baztertuz?

Zortzi hilabete duen haurra ama berrizaleek gur-
pil-gurdiska arin baten gainean jartzen dutelarik, ho-
rrelaxe jokutzen dute.

Hortik aurrera haurra ez da arrastaka ibiliko!...
Horra hor ttentte, bere buruz dabilen 14 hilabetetako
haurtxo baten gisa! Horra hor, habaila ausartan, gela-
ko zoko batetik bestera, eta trabak jo aurretixek be-
gjak hesten dituela... Aurrerapenaren lilura! Ba ahal
dago horretan, ordea, egiazko aurrerapenik? Eta —hel-
burua bait da honetan konda— lauroinka luzaz ibili, pis-
kanaka gero jaiki, eta bere giharrak eta zainak ongi es-
kuratuz ibiltzen hasi balitz bezain ongi eta ziurtasun
berberean ibiliko ote da modu horretara hazita? Bes-
taldera dela erakutsi du esperientziak. Baina hala ez
balitz ere, beti luke berezko erakaspideak hobari na-
barmen bat: ez diola haurrari ahalegin bitxirik eska-
tzen, bizieraren abiagunean egokitzen dela txit ongi,
eta ez dagoela sistemazko ikaskairik. Aski du ingura-
menduak haztamu-bide zabala eta etsenplu apartak es-
kaintzea (hauek beti bait dira hel daitezkean adar sal-
batzaileak), beti gorago eta gorago joateko, ezagutza-
ren frutuak iristeko; eta halere, behin ere sobera
arriskatu gabe, eta atzeratzeko eta garaitzeko atekak
beti atxikiz.

Oharketa horien ondorioa izango den gure pedago-
gi-bidean, kontutan hartu beharko ditugu oso funtsez-
ko gogoeta horiek.

* * *

Hitzegitean ematen dituen soinuen sinuak direla hizkiak ulertu du Balik; eta, sinu edo ikur horiek lotuz eta elkartzuz, bere hitzak eta solasak grafikoz itzul ditzakeala; «idatzi» egin dezakeala, hitz batez.

Orain, batera zuhurki eta ausarki, teknika horren jabekundeari jalkiko zaio.

Zuhurtasuna eta ausardia, esan dugunez. Menturaren helburu den aulki edo erredizaruntz ateratzera-koan puntu seguru batetarik (aulki edo errediza bate-tarik) abiatzen den haurrak bezala jokatzeko du; eta ba-tzutan hura bezala, erdibidean atsedean bila, dagokean euskarriari eutsiko dio.

Bali-ren gutun-sortan, hain zuzen, euskarri horiek atxemango ditugu (tarteko pausaleku gisa): haserakoa eta amaierakoa.

Euskarri horietako batzuk ikusiak ditugu: «Aitatxo maitea... Muxu asko»; eta hauen artean, idazten daz-kien izenak, benetako zirgilu gisa bidean ezarriak (25 ir.).

Hona hemen, berriz ere, ohiko zurkaintzok mugatu-rik eta bildurik, hiru gutun. Tarteko parte, gorago az-tertu dugun fonetika hutsaren arabera hornitu du. Bai-na, baita fonetikaren arabera izkribu horretan ere, berezten ari den esaldi bat somatzen da; piskanaka, zein eraginen bidez ez dakigularik, gero eta garbia-go, azkenean beste zurkaintz bat bihurtu arte: «Nola zaude?... Eta ama, nola?»...

Fonetismoak taxutuz eta argituz, hona hemen ira-kurtzen duguna:

Line maitea:

Muxu asko asko. Gogora hadi beti herri hone-taz. Zein lekutan bizi haizen esango ahal didan? Nola hago hi, Line? Uste dinat (hire amak) ez dadukala sosik ugari...

Ondo dago hire ama? Uste dinat ez dadukala sosik ugari. Esaion ni ondo nagoela.

Muxu asko asko.

Ondo izkribua, berriz, benetako gutun bat da. Bi zur-kaitzen arteko moduan, eta irakurtzeko tankeran ida-tzirik, berri nagusiak ematen ditu. Maila horretan Ba-li-ren gutunak eta idazkuntza egokiro erabiltzen oso iaioak ez diren jende xeheen gutun askok, elkarren eite handia dute. Hauek ere, gutun egoki bat egiteko-tan, buruz ikasitako esaldi osoak bota behar bide di-tuzte: «Hemen nauzu, luma eskuan, neuri berri onak zuri kondatzeko abian; eta, nik uste (uste nahi nuke) zerori ere gutun honek osasun onetan harrapa zai-tzan». Gero albiste batzuk ohi datoz. Eta gero gutuna honela bukatzen da: «Laister zure berri onak jasotze-ko itxaropenean, har itzazu neure agurrik beroenak»...

Horrelakoxe bilgune eta marku bat aurkitu du Ba-lik:

«Ama maitea:

Nola zaude? Ni ondo nago»... Berri batzuk ondotik. Eta, amaitzeko, honelaxe beti: «Muxu asko asko. Ba-lik».

Oraindik ere luzaroan bilgune edo mugakera hori baliatuko du Balik.

MOLDIZTEGIA

eta gutunetatik ateko izkribuak

Balik 6 urte eta 6 hilabete du orain. (Ustekabezko gertakari batek ohean atxiki du bi hilabetez eskolatik berezita; eta baliteke horregatik atzerapen apur bat izatea ikaspenen jabekuntzaren aldetik).

Badaki bere buruz idazten. Ez kopiatzen bakarrik; baizik-eta bere burua idazkiz adierazten eta azaltzen; eta, ene ustez, bere adinerako egokiro ari da.

Oraindik ez daki irakurtzen, eta nahi ere ez du. Gutun bat hartzen duenean, irakurrarazi egiten du. Bali-teke uko honetan haurraren aldetik harrokeria apur bat izatea: haurrak ez duke motel agertu nahi, bere ahulezia horrela salatuz. Ez da hori, bestalde, inolaz ere haurren ezagugarria; hain zuzen ere, ez dakigu on-

gi neurtzen jokabide-mota honen inportantzia pertsona nagusien bizieran.

Dударик ez dago, halere: hastapeneko saiaketan, jakinarean gainean ala oharkabean, hurbilkuntza bat obra-tzen da hurrarengan. Balik hitzak kopiatzen ditu, eta laister agertuko dugu horren dakarrena.

Gure eskolan erabiltzen dugun moldiztegiak oso eragin onuragarria du maila horretan. Hona hemen no-la lagundu dion Baliri.

Egunero eta '36' tamainako moldizki handiak erabili-z, mementoko beren kezka nagusiak biltzen dituen iz-kribu bat osatzen dute hurrek. Haziago diren hurre-kin, berriz, hurrek berek beren gisara idazten dituz-ten izkribuen arteko bat hautatzen da. Bali bi taldeen kuntzean bide dago: handien taldean inprimatuak izan daitezkean izkribuak idazten ditu. Gogo bizia du inpri-matua izateko, gutunak idazteko bezala; eta bion akui-lua eta eragilea ezpal berekoak dira. Badaki, ikusi du-gunez, hizkiak edo soinuak elkartzen; eta hortaz ongi lortzen du.

Halaz ere badago orain gauza berri bat: teknika hau ez da gutunen teknika; eta, moldiztegian alferrikako gertaturik, itzaldu egiten dira haserako eta amaiera-ko zurkaitz horiek. Gutunen idazketan, ordea, irmo iraungo dute biok.

Hona hemen Balik idatzitako lehenengo izkribueta-ko bat (28 ir.):

Bart Lucienne, Germaine eta Pigeon ohera joa-terakoan, Pigeon-ek ez zuen argia itzaldu nahi.

Orduan Foune jaiki eta itzaldu egin du. Pigeon marmarrean hasi da; baina amak paretan jo du, eta denok lotara.

Hona hemen Balik zer egiten zuen garai horretan. Haren etsenpluak hau erakusten digu: ekintza interesgarriez haurra eskolan arduratu egin daitekeala, are barne-pizkarri diren ekintza biziez —ez nahi-ta-ez eskulanan taldekoak beti— baita irakurreraren teknika izan baino lehenago ere. Eskolako moldiztegiarekin batera, eta guk geure agerkarietan azaldu ditugun eran, erabilirik, agiri bikainak dira.

1936-IV-30-an (Balik 6 urte eta 8 hilabete duelarik) '36' tamainako moldizki-mordo bat hartu berria dute ttikiek. Taxutua izan da, eta lanerako gertu utzia.

Balik bere burua eskaini du ttikiei laguntzeko. Eta arbelaren aurrean jarririk, hau idatzi du:

M A X

Max beti berriketan
bureau toberde eta
gorriaz. Rrrr!

Huts bakar bat: «bureau toberde» (=bere auto berde) izkribo honetan. Gero moldizkiak osatzen lagundu du. Ikusgarri zen nolako senaz eta etorritz bilatzen zituena hizkien moldeak!

Maxek bere izena osatzen ikasi du. Haren poza!

—Orain —esan du berak— orri bat nahi dut. Neure izena idatzi, eta amari bidaliko diot.

—Ikusten duka? —esan du harro-harro—. Neuk osatu diat izena!...

Istant batez irten naiz. Bihurrerako, dena inprimatzeko gertu. Bali prentsaren gainean jartzen ari da:

—Orain, irakurtzen eta idazten erakatsi nahi nieke ttikiei.

Eta horra hor, itxuraz bederen oraindik irakurtzen ez dakielarik, txikiagoei irakurrarazten. Gero biziki ongi erakatsi die kopiatzen eta edertzen. Eta ikastaldea pozik gelditu da.

IRAKURRERA

Gertakari horrek bi ohar erakartzen ditu. Guk hau diogu: Balik ez daki irakurtzen! Gogoan dugu, oharka-bean, ikasle txintxo artatsua, beretzako baliarik ez duten hitzak ilaren etendurarik gabe esaten dituenena. Hots, beste batzuek, bide bereetik, musika-orrialde bat irakur dezakete, halarik ere armoniaren eta noten arte-mezuaren arrastorik somatu ez.

Bere buruaren aski jabe ez dela esatea egokiago litzake, eta horregatik ez duela irakurreraren frogaketarik egin nahi. Ez dago dudarik, ordea, hitz asko ote dakienez, idatzi egiten bait ditu; eta ez duela ulertzen ez duenik idazten.

Irakurrerari buruz, hortaz, idazkuntzari buruz bezala, haztamuzko saiakuntza somatu behar da, eta honi kasu eman.

Hizketaren bidez lehendabizi, eta biziera jori sustatzailearen zerbitzutan, haitzen balioaz, hitzen adieraziaz eta psikologi-tankeraz jabetzen da haurra. Geroko ikaskizunen azkartasunak eta segurantziak, haztamuzko lehenengo saiakuntza honen sakontasunean eta aberastasunean dute oinarria.

Bidezkoa da, beraz, maila horretan guk pausatu nahia; eta ez, erakaspide zaharrek egin ohi zuten antzera, maila horri ez-ikusia egin. Horiek, haurraren ikasibizien ederraz ahazturik, eskola-hitz soil eta hotzez antolatzen zuten ariketen saila.

Bigarren mailan: ezagutzen dituen hitzak kopiatzen ditu haurrak: eredu bat zuzenki idurikatuz, edo fonetika-hotsak gero eta hobekiago emanaz; eta horrela hitz horien itxura «ofiziala» zehazki lortu arte.

«Argitua» bataiatuko dugu haurraren idazkera, eta liburuetan agiri diren idazkiak etengabe alderatuz lortzen du haurrak sinuen ezaguera. Hots, ezaguera hori da (hitzezkoa ala hitzik gabea) egiazko irakurreraren karkoa.

Irakurreraren jabekuntza normalean, horretara, hauek iruditzen zaizkigu urratsak:

1. — Hitzen eta esaldien ahozko esaera. Ahalik eta laisterrenik lortua, jakina, eta ahalik eta aberatsenik osatua; baina beti ere inguramendu aberats eta laguntzaile batek zerbitzaturik, haztamuzko saiabide bizi eta soilaz lortua; eta, noski, inolako ikaskai sasi-sistemazale guztietatik at.

2. — Idazkuntzaren bidez eta urrutiko lagunekin, hitz

eta esaldi haietxen erabilera. Beti erakaspide beretik ari, inolako ikaspen sistematikorik gabe.

Haztamuzko saiakuntza erraztutzeko, inguramen-
dua zaitu behar da.

3.—Izkribu arrotz batetan hitz horietzek agertzen direlarik, delakook haurrak bere buruz ezagutzea.

Izkribu batetan haurrak ikusi eta ezagutzen dituen hitzak azaldutako pentsamentuak ulertzeko haina ez direno, ez da izkribu hori irakurtzeko gauza. Eta irakurri nahi ere ez du. Horixe oharrarazi du Balik halako batez: «forêt» hitza, «forte» irakurri du... «Zer saltsa da hau, ordea?», esan du. «Honek ez du funtsik». Azkenean «forêt» irakurri du; eta halaz ere luzaroan saiatu da hitza eta ideia egokirazten, grafismoa eta soinua elkartzen, eta dadukan adierazkia agerrarazten.

—Beharrik! Orain konprenitu dut! —esan du—. Bartzutan irakurtzen jakin gabe dakigu irakurtzen... Hitza irakurtzen badakigu, baina ez dakigu zertsu adierazten duen. *Irakurtzen ez bageneki bezala gertatzen da.*

Xeru-xeru, beraz, zehatz azaldu zuen harek askotan gertatu ohi diren estropozoen kakoa.

Jabekuntzaren pleguak, ikaskerak, horrela, lehertza-
penaren gertakari ezaguna argitzen du. Egungo zenbait pedagogilarik horretan jarri du arreta osoa, batzutan erdi gertakari izkututzat presentatuz, eta nolnahi ere jabekuntzaren lege-ohi guztien hausletzat bederen.

Bali-ren kasoan, 1936-XII-3-an gertatu zen lehertza-
pen hori (alegia, neskatilak 7 urte 3 hilabete zuelarik).

Liburu bat hartu du horretan, eta bapatean, irakurreraren teknika benetan baduela, eta idatzirik edo inprimaturik dagoen *guztia* ulertzen duela erreparatu du. Baina, ustekabean, haren pentsamenduaren isuria eteten edo galerazten duen hitz bat gertatzen, hitz horren esan-nahia edo adierazkia galdetzen du; eta sinuaren ulertzapen sintetikoa eta baterakoa berriz lortu arte.

Hortan hau irakurtzen ari zen: «udaberriko egun batez tximenetik irteten ari zelarik, zera bat ikusi nuen... Alegia... zer da 'iratxo'?». Nik azaldu, eta aurrera ekin du berriro.

Kolpez, beraz, eta eskolastikak ulertzen ez zituen sinuen urratsetatik pasa gabe, irakurreraren egiazko muinera iritsi gara; irakurrera ez bait da eskuzko edo moldiztegizko sinuek mekanikeria lehorretan segidan botatzea; sinu horietxen ulerkuntzaren bidez, adierazten diren ideien ezaguera lortzea baizik.

Heziketari buruz, uste izaten den baino axola handiago du irakurreraren jabekuntza-modu honek. «Alderantziz» irakurtzen ikasi duen haurrak —nolapait esateko— sinuen fonetikuntza etengabe eta mekanikoaren bitartez ikasi duenak, nahi-ta-ez ikusten du, denen buruan, fonetikuntza hori garaitzpen bat dela, eta hontan datzala funtsean: ezagutzen ez diren hitzak irakurri ahal izatean; eta kanpotikako bide horretatik, nork bere hiztegia ugaltu ahal izatea! Eta irabazketa horretan josten ditu begiak Eskolak; ahalmen horretan eta horren araberez neurtzen du teknikaren jabekuntza, irakurpidea faltsu lezakean ezaguera sinkretikoak oro baztertuaz.

Hots, irabazpen handia dago horretan, dudarik ez:

baina arrisku larriak ere badaude. Erakaspide horrekin ohitu den haurrak, baita ulertzen ez duena ere irakurtzeko ohitura hartzen du; eta, azkenean, izkribuaren mamiari biziro lotu beharrean, areago lotuko zaio mekanizazio huts bati. Baina ohitura hain sartu zaigu muinetaraino, non jokabide horren bitxikeria eta desegokitasuna ez bait zaizkigu ageri.

Eman dezagun, ordea, ulertzen ez dituen hitz zailak haur batek zehazki irakurtzen dituela: alegia, mamiaraino heldu gabe edozein hitz xuxenki irakurtzen bada kiela. Zer esango zenuke zuk halakoaz? Seta zozo hori buruan sartuz eta papagai-teknika huts horretan barrena abiaraziz, bapo astotu dutela koitaua! Sistemakiro, halere, eginkizun kaltegarri horixe bilatu izan du Eskolak. Papagai-kultura itsatsi baldin bazaigu, beraz, ez gaitezen txundi bederen!

Noraino den zuhurrago eta gizatarrago Bali-ren jokabidea! Honek ez du ulertzen ez duenik ezer irakurri nahi, auerra baino lehenago hitz berrien adierazkia edo sentidua ezagutu nahi du, edozeren aurretik hitzen mamiara eta ideia nahi du; pentsaera-ixuri horixe bait da irakurreraren funtsa, eta dadukan izpiritu-dinatasun bakarra.

* * *

Hogei-ta-hamar utre honetan askotan hitzegin da irakurkera orokor edo osoaz, hitzak behingoan adiarazten dituenaz, eta irakurkera klasiko eta analitikoaren ukatzaile gisa aurkeztu izan da; eta osotasun edo orokortasun hori haurraren izpirituarekin hobeki ezkontzen eta egokitzen dela oharrarazi da.

Horrela jokatu, ene ustez, alegiazko urrats bat baik ez dugu egiten aurreruntz; eta berezko irakurreraren bidez ikasi duten neure haurrengan ohartu dudanez, urrats hori dirudien baino kaxkarragoa da.

Balik ez du ikaspide guztiz orokor eta osorik jarraitu. Haren ikasien jabekuntzan, hiru maila izan dira.

Lehenengoa orokorra izan da benetan; eta honetan ezagunak zituen hitzen, eta pratikan erabil zitzakean esaldien grafismoez eta idazki-itxurez jabetu da.

Bigarren mailan, osakuntza egikorrean barrena abiatu da, benetako erakieran. Alegia, hitzen eta esaldien fonetika-ikurretatik abiatu, bere-bereak zituen tekniken arabera (gero eta hobeak gainera) ariketa osatzaille edo eraikitzaile bat erabili du: elementoetatik irten, eta hitzaren sintesi biziraino iritsi.

Hirugarren mailan, ezagutza eta irakurketa orokor eta osora bihurtu da berriro: irakurtzean ez du hitza asmatzen elementoak edo hizkiak ilaran eta elkarren ondotik banan-banan aletuz eta ikertuz. Hitza ulertzen ez duenean joka lezake horrela; hots, irakurtzen saiatzea alferrik litzakean kasoetan hain zuzen. Irakurreak, ahozko bilakatu aurretik luzaroan ideia-begizko izana, bide bakar batetik jotzen du: izkribuaren hitzak orokorki eta osoki ezagutzetik; eta hauxe da irakurkera orokorraren kaxkoa.

Ez dago, beraz, moda batetik bestera itsu-itsuan letratzeko batere beharrik. Itxurek, bestalde, ez dute konda. Hitzek zer adierazten duten haurrak ez badaki; bere bizian itsatsirik ez badaduzka; nahiz hitzok ongi xamar (eta ez beti!) azalduak izan, eta sentiduen al-

deko alderdiak ederki nabarmenerazirik, haurrari ez ba-
zaizkio funtsezko iruditzen, irakurrera orokorrak eka-
rriko duen akatsa, lehenagoko Eskola zaharrak ekartzen
zuen berbera izango da. Teknika faltsuak zentzugabe-
keriaren zolaraino oker bait dezake irakurreraren eta
idazkuntzaren mami sakona.

Geure idazkera eta irakurkera berrien moldakun-
tzan, kontutan hartu beharko ditugu ohar horiek, beti
haurraren biziaren giroan bertan pentsatuz.

IRAKURRERAREN ETA IDAZKUNTZAREN TEKNIKEN JABEKUNTZA OSORUNTZ

Irakurreraren erakaspena azalduz bukatzeko, aurre-regi joan gara apur batez.

Balik badaki irakurtzen. Irakurrera horren zehaztasuna eta aberastasuna, aurrerago jarraituko den haztamuzko saiakuntzaren mendean daude. Hots, saiakuntza hori ez da behin ere burutua ;oraindik gaur bertan ere, ezagunak ez zaizkigun izkribuen irakurri-beharra gertatzen bait zaigu maiz.

Haztamu-bidez onduko du Balik bere teknika. Baina jokabide bikoitz baten arabera egingo du: bere hizte-giko parte diren hitzen idazkuntzaren eta ezagueraren bidez batetik, baina hitz berrien ulerkuntza orokorraren bidez ere bai. Horrelaxe gertatzen da hizkuntza mintzatuan eta hizkuntza idatzian: ezagutzen ez diren hitzen adierazkia, bilduta dauden esaldiaren beraren uler-

kuntzaren bitartez argitzen da. Beharbada ezina litzai-
guke haien definizio osorik ematea, baina zertsu adie-
razten duten senditzen da; eta hauxe da funtsezkoena.
Gero ere beste esaldi desberdin batetan aurkituko di-
ra, beharbada adierazkizuna pitin bat desberdindua.

Ikaspuntu guztietatik eta eguneko ordu guztietan
ikusi arte benetan ezagutzen ez diren bista horiekin
bezala gertatzen zaigu hauekin.

Berezko jabekuntza, beraz, txit normala da; nahiz
maila berri bat balitz bezala agertu: alegia, ulerkun-
tzak ulerkuntza balekar bezala. Bide bidezkoa benetan.

* * *

Eta orain, idazkuntzara bihur gaitezen.

Honen ikaspenen osoa, eginkizun luze, lantsu eta
zaila da; batez ere ikaskizuna frantsesa bezain zorro-
tza eta doibera den hizkuntza bat denean.

Balik badaki bere burua idazkuntzaren bidez adie-
razten. Ulertu egiten da idazten duena. Idazkiaren ma-
jia-kutsua normalki ari da. Eta haurraren gorago-beha-
rrak, hobeki garaitu-beharrak, begien aurrean dituen
etsenpluak berdintzeko gogoak, eta dituen adierazpide
eta mintzabide guztiak egokiago bihurrazteko desi-
rak, eragingo ez balute, maila horretantxe geratuko li-
tzake haurra. Jakina denez, hauxe yortu ohi zuen antzi-
nako eskolastikak, jaiarak zeharo kamustuz eta idor-
tuz.

Zuk hau galdetzen diozu zeure buruari: «Eta hitzak
erdipurdi idazteko ohitura txarrari eusten badio? Psiko-

logiak erakatsi dizkigun joera iraunkorreatatik, baliteke ortografia desegokiak eta joskera maketsak betirako hondatzea haurraren teknika. Ez da hala? Ez ahal da askotan esan haxe dela alde zuzenetik prestatu ez den esanerakoaren (diktadoaren) arrisku nagusia? Alegia, idazkera makurrak gotortu egiten direla, eta azkenean nolana hiko zuzenketa guztien gaitetik idazkera zuzenei gailentzen eta nagusitzen zaizkiela?»

Kezka hauek ez zaizkio Eskola zaharrari batere axolarik. Eskola zaharrak, ikusi dugunez, arazo guztiak bizi gabetzen ditu; eta bai idazkuntzaren bai irakurreraren problemak itzuletara erasotzen ditu. Mutur onetik helduz gero, ordea, zertan bildurturik ez dago. Haren inguruko jendeak librokori bi zangoren gainean dabiltzalarik, uste duzu zuk behar baino luzaroago ikusiko duzula haurra lauroinka? Bere inguruan hizkuntza garbia entzuten badu, begien aurrean idazkuntza egokia paratzen bazaio, gaitetik ezinezko joera batek eraginda, egokitasun hori idurikatuko eta bilduko du. Keinuetan eta pentsamentuetan beti batasuna bilatzea biziaren lege hertsia da.

Baina igoera hori gaur arte ikusiak ditugun eragile eta baldintzaile berberak mugatzen eta zertzen dute:

- haztamuzko saiakuntzak;
- batera zuzenketa eta ausarki jokatzeko, ongi burutu diren entseguen ustiakuntzak;
- oinaz lurra ikutu arte, eskuak ez laxatzeak;
- teknikan eta funtsean inguramenduak laguntzen duela, haurraren bizitasun zabalak.

Idatz-ikaspenaren jabeakuntza honen habailari dago-

kionez, ezin da alderatu itxuraz azkarrago ziren erakaspide zaharrek, bi bideon artean izaerazko desberdintasuna dago-ta. Batak itxurari begiratzen dio, funtsaren kaltetan; besteak ez ditu berezi nahi pertsonaren aberaspide hau batetik (idazten jakitea, alegia), eta indartasunaren, orekaren eta biziaren emendioa bestetik; hauetxek bait dute konda azken buruan.

Berriz erabiliko dugu gogoan, beraz, idazkuntza (asmazio-idazkuntzarekin eta adierazpideekin hertsiki lotua); eta utzi genuen puntuan hartuko dugu (1936-l-1-an); alegia, Balik 6 urte 4 hilabete zuelarik.

Bere gutunetan aipatua dugun jarraipide nagusia onartuko du oraindik luzaroan; hau da, zurkaitzak eta pausaguneak lagun. Tarteetako izkribuak, moldiztegiak inprimatzen dituenak bezala, ahoz esaten duenaren itzulpen hutsa baizik ez dira, Balik ezagutzen dituen grafismoen eta idazkien bidez egina.

Zein dira idazki horiek?

Heziketa-urtebetean bildutako berrogei-ta-hamar bat izkribu aztertuz emanen dugu ideia bat.

...*Lehendabiziko hamar dokumentoetan* (alegia, Urtarrilaren 29-ra arte) guztiz ortografia onez idatzitako hitzen kopurua txikiegia da. Pertsona-izen ezagunak baztertuz gero (hastapeneko jabekuntzat dagoeneko markatuak) hauek ditugu (euskarazko itzulpena):

larunbata	musu asko asko	etxean
ama	ongi	ostirala
joan	haurrak	hauxe da dena
amabitxi maitea	gauzak	

Gainerantzean, lasai baino lasaiago, fonetika hutsaren arabera moldatzen ditu hitzak:

- «be» idatziz, «ve» eta «fe» adierazi nahi luke maiz;
- «c» beti «k» gisa erabiltzen du; «ce, ci», «ke, ki» behar dira irakurri; baina bai «ki» bai «qui» ez-ezagunak zaizkio oraindik;
- «e», «é» eta «ai» berdin zaizkio;
- «g» beti «ga» gisa. Ez ditu berezten «ga, go, gu» batetik, eta «ge, gi» bestetik (frantsesaren le-gearen kontra);
- «h»ren balioa ez du ikusten;
- «j» eta «z» (ez-ezaguna) nahasi egiten ditu;
- «k» ez du ezagutzen;
- «l» «le» da harentzat;
- «n», «ne»; «p», «pe», eta abar;
- «x, y, z» ez ditu ezagutzen.

Apostroforik ez. «Ou, on» erabiltzen ditu, baina «oi, ni, in» ez. Are gutxiago «oir, ain, our, ar, pl».

«Il y a» idaztekotan «et la» idazten du (ohar, beraz, nola saiatzen duen fonetikaren itzulpena); «langue» idaztekotan, «lave»; «qui me tirait de la langue» idaztekotan, «cimetiréalave»; «maintenant je vais», «mètenajevè» (aski ongi emana, agiri denez, eta gero zehazkiago azaldua); «aujourd'hui», «ojodu»; eta abar.

Haztamuka egiten duen entseguaren aniztasuna ageri da hor: «travaille»ren ordeaz aldiz «travaille» aldiz «travalle»; eta abar.

Hurrengo *hamar* dokumentoak Martxoaren 20-ra arte heldu dira.

Egokiro idatzitako hitzen kopurua handitu egin da; ((euskarazko itzulpenean)) -la, hobeki, epaikari, etorri, liburu, maila, egun on, eguraldi txarra.

Alderantziz, ordea, badugu «our» (=four), «cri» (=écrit), «chire» (=hier), h-rekin beraz; eta «ai» «è»-ren kide agertzen bide da.

Haztamu-bidean maiz ikusia, Balik hau idazten du: «dè secargos» (=des escargots), fonetika aldetik ʒ bait da gaizki bildua. Baina ia segidan, eta singularran, hau idatzi du: «un petit secargot». Era berean «éteint» hitza (euskaraz, itzali) eman nahi duelarik, zalantzan egon, eta azkenean «etoint» idatzi du (gutxi gora-behera baizik ez lortuz, beraz).

Izkribu-mordoska honen beste ezagugarri bat: silabak ez datozela elkarren segida luzetan emanak. Hitzak laburrago direla ulertu du Balik. Eta aurrera jo du ebaketaren bide horretatik: idazkiak nola gerta erdibitu eta elkartu ditu haseran, puska luzetxo edo laburtxotan aldizka. Batzutan menturak berak leku egokira darama etendura, eta bestetan lehenagoko saiakuntzek laguntzen dute.

Hori ikusten dugu dokumentoetan (29 ir.).

* * *

Hurrengo *hamar* dokumentoen mordoa (21/30) denbora-epe luzeago baten barrera eginak dira: Apirrilaren 3-tik Urriaren 27-ra arte.

Ondo idatzitako hitzen kopurua urri dago beti: ((euskal itzulpenean)) txiki, zu, teatro, itzuli, zaitu, Jauna, labe, ni, jan ditugu, bidaia, egiazko, ikus, gutun, eskaera.

Piskanaka itzaletik irteten hasi diren hitzak, halere, onduz doaz: *écrit*, jantille, je mamuse, vous vous amusé, eta abar.

Etengabeko aurrerapena dago hitzen itxuran eta silaben elkarkeran. Nolanahi ere teknika seguru xamarra du Balik. Ez du honek anztik ere, jakina, hitz bakar batzuk bere pentsaera zaluaren arabera (eta latinez ikasten ari den ikasleak egingo lukean bezala) nekez ezkontarazten dituenarekin.

Haurra lauroinka ibiltzen da, eta lortzen dituen habailak eta abileziak txundituta uzten gaituzte. Hots, *Balik ausardia breberaz idazten du. Idazkuntzaren oztopoek ez dute ezertan mugatzen haren pentsamendua: egokiro ala desegokiro, Bali aurrera doa, eta hitz guztiak idazkiz adierazteko era badu beti. Hori dela bide, haren izkribuek sinbolo-balioa hartzen dute, eta haurraren pentsakeraren eta berezko joeren irudi bihurtzen.*

Hori argitzen du *30 gn. irudiko izkribuak (1936-V-25)*.

Haurrak, bestalde, ez du batere ahaleginik egiten egokitasunaren bila. Hori da, hain zuzen, heziketa-emaleek errespetatzen ikusi behar duten funtsezko baldintza bat: ahalegin egin behar balu, ezin ezkonduko litzuzke pentsamendua eta idaz-teknika, eta izkribuan zeharo lur joko luke.

Eman dezagun haurra istorio bat kondatzen ari zai-gula. Darakuskien etorriak eta kolore-sendimenean nabarmen ageri denez, barne-muinen azalpena da hizketa. Hots, gaizki eman duen esakuna zuzentzeko, edo hau edo hura nagusien eran esan dezan, ebaki eta dena birresan-arazten badiogu, haren etorria seko agortuko duzu; eta azalpena betirako etengo. Mintzairaren arreta hori berez etorriko zaio aurrerago, mintzaira-teknikaren segurantziarekin batera. Bizikletan ikasten ari zarelarik, haseran xuxen eta orekan joan beharra nagusitzen zaizu: ez duzu besterik buruan, eta gorputz osoak lagundu behar zaitu. Baina orekaren arazoa automatiko bihurtu zaizunean, orduan lasai eta, ezelako nahasterik gabe, oinez joaten bezain lasai hitzegin dezakezu, keinuak egin, edo bazterrak mirets.

Egoera berberetan guk geuk eman genezakeana baino gehiago ez dezagun haurrarendik nahi.

Ondoko *hamar* dokumentoak (31/40) 1936-ko Urriaren 24-tik Azaroaren 26-ra arte doaz.

Beti ere hitz gutxitxo guztiz ongi idatziak: euskal itzulpenean, hotz, erantzungo du, kontuz zuk, itzuli, zinema.

Alderantziz, gero eta gehiago itzaletik agertzen diren hitzak.

«On y est» idaztekotan, Balik «hier» hitza hartu du gidari (egia esateko, idatzi nahi duenaren soinua ongi xamar biltzen du); eta honela idatzi: «on ni hier».

Beste esakun honetan ere, garbiki ageri da fonetika-hurbilkuntza: «Lulu fè la carte de chè pacoi» (Lulu

fait la carte de j'sais pas quoi). Eta «l'un tèrena sionale» (=l'Internationale).

— «Z» agertu da. Eta eroso iduritirik, «s» ordaintzen du ia beti: «mezon» (=maison); »chaize» (=chaise); «Elise» (=Elise); eta halako.

— «que» «c»ri nagusitzen bide zaio: «quelodine» (=Claudine), «chaqun» (=chacun).

(Gogoan atxik dezagun beti: arrakastak oro, ongi lortutakoak oro, nagusitzeko joera dakar; eta ondo irten ez diren saio-motak baztertzen).

— Gauza bera «au»ri buruz: gero eta gehiagotan ageri.

— Gauza bera «ai» diptongoarekin.

— «llia» gero «il y a» bihurtzen da (ondo beraz); baina gero «ili y a», eta gero berriz il y a». Horra hor haztamu-bideko urrats guztiak.

Gure sortako 40 gn. izkribuan (eta honek ez du inolaz ere adierazi nahi Balik idatzi duen 40-gna. denik!... askoz gehiago, jakina, idatzi bait du) Balik idazki hauek ezagutzen zituen eta egokiro erabiltzen: «au, an, oi, aii, ui, ar, ière, ai, z, qui, ier, ar, eta or».

Nahiz ezaguna, apostrofoa ez da oraindik eskuarki eta ongi erabilia izaten. Zedilla ez da bakanka baizik agertzen (ç); «eu» «e» idazten du; eta «ette»ren arrastorik ez dago. «K»rik ere ez oraindik. Baina «y» agertu da. Kontsonante bikunik ez du erabiltzen; eta «est»

aditzari buruz ez dago bakuntasunik. «Ai» berriz zailantzan oraindik.

Ohar horiek eginik eta argitara eman ditugun dokumentoek erakusten dutenez, idazkera hurbilago dago, eta hortaz errazkiago irakur daiteke. Silabak elkartuz doaz piskanaka ilara zuzen, aldagabe eta segurutan.

Hain jabetu da Bali bere teknikaz, non ezin zume-kiago erabil bait dezake. Eta horrela izkribu horiek jatorrizko haren itzulpena dira.

Horreraino, halere, pentsaera mugaturik zegoen, azalpide-tresnen eskasiak berak baldindurik. Arte-bidearen tresnek (luma, arkatz, pintzel, gubia, zulakaitz, xixel) zeinek bere erara baldintzen eta mugatzen dute arte-lana. Bi gertaerok elkar dirudite.

Bere izkribuen idazketan, Bali azkar baino azkarra-
go joaten da, bere pentsaera bezain azkar. Eta bide honi kasu eman behar: ortografiaren edo itxuraren kez-
kak ez du sekulan gelditu. Forjariak bezala jokutzen du
Balik: harek fite-fite jotzen du burdina, gori deno eta
bebingoan; eta metalaren hobenak edo makurrak xu-
xentzeko asmotan, ez da behin ere gelditzen. Ez du
honek adierazten, kasu, kolpeak nola gerta ematen di-
tuenik: aurretik egina zuen haztamu-aldi luzearen on-
dorioa da jokabidea. Baina, oraingoz, horra zer den:
edo kolpez eta bebingoan dena egin, edo dena berriz
has... Bultzada bakar batez, beraz. Lortutakoari ongi ba-
deritza, berriz berotuko du, eta haserako lana finduko.
Era berean, lehendabiziko idazkiak, barne bultzada lar-
daskatu eta tradituko ez badu, oldez eta bebingoan bu-
rutu behar da. Hori da ikaspen guztien logikabidea.

* * *

Hona hemen orain beste dokumento mordo bat (41/50).

Orain ongi idatzitako hitzen lerrokada luzeago da askoz ere: ((euskal itzulpenean)) egin, bidaia, han, pelerin, egik, berbera, hosto, orpo, ate, bide, astearte, arkatz, txiki, andere, sukalde, soineko, izkribu, hi, handi, murru, egingo du, zakurreme, zakurrar, alaba, lili, eske, segundu, ibil, erakuts, nahiz, eguerdi, ia, dutxa, urrats, gudu, esku, atzo, herenegun, egiten du, txit, gu, aldatzen du, egun, joko.

Ohar batzuk berriz ere itzaletik irteten ari diren hitzei buruz: «auci» (=aussi), «boucou» (=beaucoup), «fautau» (=photo), eta abar.

Oraindik ezagutzen ez dituen ortografia-xehetasun batzuk: «ler fleurs» (=les fleurs), «par sec» (=parce que), eta abar.

Egindako aurrerapen zabalak nabaitzeko, ordea, azter bedi ondoko izkribu hau: garai hartantxe erantsi genion oharrak dionez, *zortzi minututan* idatzia izan zen (ikus 30, 31 eta 32 ir.).

(idazkera fonetiko hutsak dira)

Orain geure izkribu-sortako azkeneko paperak aztertzen baditugu (bost izkribu luzeago; eta 1937-I-1-tik V-10-ra arte idatziak; alegia, Balik 7 urte 4 hilabetetarik, 7 urte 9 hilabete zituen arte), hau ohartuko dugu:

Ongi idatzitako hitzak: ((euskaraz emanez)) nik dut, marraskilo, eri, saski, oski, zeharo hondatua, goiz, mahain, ahuntz, etxe, panpin, andereño, eskola egiten

duena, itzultzen da, auto, bila, kasetak, esne, kantu, mixirrika, zubi, korrika egin, entsalada, fruitu, azkar, kantatuko du, zahar.

Piskanaka piskanaka itzaletik irteten ari diren hitzak: «colection», (=collection), «bocou» (=beau-coup), «papion» (=papillon), eta abar.

OHAR: «ai», «è» eta «ê» elkarren trukean dira. Apostrofoak ezagunak dira, bakanka baizik ez ditu harelere erabiltzen. «Que» batzutan «c» agertzen da; «eu, er» ez dira oraindik ezagutzen; «an» eta «è» elkarren trukean ere; «ph» ezezaguna; gauza bera «y» eta «gn».

Garai horretan (7 urte 9 hilabete) idazkuntzak ez du ia izkutukirik Balirentzat; berezko eta razional esanenezakean idazkerak bederen. Hauxe da, hain zuzen, azken Gudu Handiaren ondoan Frintzian «idazkera erraztua»ren izenez sarrerazten direnak (badira orain osoki ala erdizka «idazkera erraztu» horren arabera idatzitako kasetak batzuk). Aztergarri lirake horien berezitasunak:

ai=è	nio=gno	s=ss	f=ph	s=z
g=gue	en=an	au, eau=o;	e=eu	c=que

Hitz-amaietan hizki baliogabeak ken. Ahozko jokararen arabera idazten dira aditzak, goian emandako kidedetasunak errespetatuz. Ez dago ia «k»az besterik (nahiz hau erosoak izan oso) Balik oraindik erabili ez duenik.

Gauzak horretan, Bali benetan nagusitu da idazkuntzaren teknikaz; eta bere hizkuntza, osotasunaren mai-

la ondotxo iritsi duen neurrian, guztiz egokiro idazten badakiela esan daiteke.

Dena dela, halako goiz batez, eta minutu bakan batzutan, ondoko izkribu hau moldatu du (aurrerago guk jatorrizko bere hartan emana; ikus 33 ir.).

Moldiztegiz inprimatzeko hautatu dugu. Eta, geure teknikari lotuz, elkarrekin egin dugu orrazketa txiki bat; eta zalantzarik gabe arte-balio bikaina duen olerki hau argitaratu dugu:

Badator udaberria,
denok pozik,
denok kantari!
Ator azkar, Udaberri!
Udaberria etor dadinean
denok dute kantatuko,
eta joan dadinean
denok ere negar egingo.
Kanta zazue haurrok:
zerok, bai: bihotza alai dadukazuenok.
Nik, berriz, amona xahar honek
ez bait dakit jadanik ongi kantatzen.

(fonetikazko itzulketak dira)

IKASPENAREN ZITUA

Lana bukatzerakoan, eta ikertuak ditugun paperen arabera, bil ditzagun orain Bali-ren ikasiak ortografiaren aldetik. Zazpi urte eta 9 hilabete zuelarik, Balik 116 hitz erabili zuen egokiro idatzirik:

larunbata	ama	aita	joan
etorri	maite	amabitxi	muxu asko
ongi	azkar	haur	gauza
etxean	ostirala	-la	hobeki
pipa	liburu	ibilera	sorta
gaizto	denbora	txiki	zu
teatro	itzuli	zaitu	jauna
labe	ni	jan ditugu	bidaia
ikustera joango	gutun	eskaera	hotz
erantzungo	kontuz!	zinema	egin
han	erromes	egin duka?	baita
orri	orpo	ate	bide
astearte	arkatz	andere	sukalde

soineko	izkribu	hi	handi
pareta	egingo	zakurreme	zakurrar
herrenkada	lore	eskatu	segundu
badabil	erakuts	eguerdi	arte
dutxa	urrats	gudu	esku
atzo	herenegun	egin du	oso
aldatzen digu	egun	jokoak	marraskilo
eri	saski	oski	dena
hondatu	goiz	mahain	ahuntz
etxe	panpin	andereño	eskolatzaile
itzultzen	kotxe	bila	kaseta
esne	kantu	mixirrika	zubi
korrika	entsalada	frutu	laister
kantatuko du	zahar		

Izkribu horietan beretan, halere, eta «itzaletik irte-ten ari», gure esakera bereziaz esateko, beste 400 hitz haurkitu dugu: ulertzeko moduan idatzirik, nahiz ez erabat ongi. Hona hemen horien lerrokada (euskal itzulpenean):

beti	tisana	badakik
larunbat	edaten du	ahitzen haut
goiz	farragarri	gona
etxabe	lanean ari da	-nean
taxu	sukalde	eskola
ama	zaharraka	marrazki
denak	gureak	bestea
dio	jai	egun
geroztik	eder	biharamun
joan	gauzak	jolastu
bada	bazegoen	gara
-na	mihia atera	ttiki
ari da	etxean	neskatila
senar-emazte	orain	eskalaproinak

zeren-eta	eskola	egiten zuen
joan	atzo	hotz
beste	egin dugu	bero
gau	bilera	ura
jaiki	zuzenduko	labe
-tzat	marra	margo
joan	laister	margoki
gainean	joango	olio
eltze	esango duk	soineko
aurkitu	mundu	izkribu
ez	guztia	pentsatzen du
urrats	doa	buka
haren	ongi	atzegin
ohe	pastel	murru
hura	odoltzain	bazkaldegi
zion	beti	atsegin
ene	duena	zakur
tapaki	lagundua	zakurreme
lurrean	ikaskai	hilabete
etorri	jinasia	gelditzen
estali	uste dut	asko
amabitxi	hobeki	lapurtu
nahi nuke	-nean	jersei
hordituak	egin dit	lañoa
farregizue	pena	lili
gaur	idazten dizut	kupela
lore	eritegi	dei
atzo	bakarrik	baxera
eder	jadanik	eder
besarkatzen	ikusiko huke	segituan
segundu	bizkar	damatxo
maiz	entzun	kctxe
pasean	aiboan	telefonatuko
pizina	alor	luzaz
bakar	sorta	deliberatuko haiz

leku	zēnbait	litxarrerria
ezagutzen zuen	ihes egina	intxaur
arraunetan	egutera	egunkari
errota	saski	esne
errota	arkume	kanta
xirrixta	bidal	harrapa
berriz jetsia	oski	landu
hodia	hondatu	mando
hartzulo	mixirrika	zubi
kuxkurturik	atsegin	korrika
har	garbitu	entsalada
dutxa	erkazta	fruitu
autokar	ahuntzak	bedats
lagun	aztalak	bero
gerla	panpin	negua
beharrik	mendi	alai
behar litzake	etsai	atso
inun ere ez	barruan	ondotikakoa
gidatu	koltxoi	hobeki
esku	pottolo	

Ez dago gaizki, beraz: 500 hitzetatik gora duen hitz mordo hori, ezaguna, eta Baliren idazpenetara bildua. Besterik gabe, azalpen-sorta zabala erabil liteke horren bitartez, eta honenbesterekin pozik egoteko aski izan.

Pratikan, bestalde, hitz-lerrokada hori askoz inportanteago zen, noski; aztertu diren paperak, Bali-ren idazpen-zituaren parte bat, parte txiki bat, baizik ez zirelako. Balik zein ziplo eta zein bere oldez, eta, teknikaren aldetik, hitzak zein aisa idazten zituen gogoan hartzen badugu, ondorio hau atera dezakegu: adin horretarako Bali ongi horniturik zegoela, eta hurrengo jakuntza-urratsak egiteko era onetan.

Frantses ofizialaren doitasunik eta ilaunik mehetaraino heldu da. Ohar horiek azaltzen genituen unean, Balik 14 urte eta 4 hilabete zuelarik alegia, aisa erakutsiko genukean Eskola zaharraren ikasle normalekin aldera zitekeala gure ikaslea, bai idazkeraren beraren aldetik, bai joskerazko eta ortografiatzko osotasunaretik.

Ez dugu sekula esan Bali aurreratuta zegoenik; eta hala izan zedin ere ez genuen inoiz ezer egin: eskolako lehiaketak eta irakurtzeko gogoia inolaz ere bultzatu beharrean, lanerako gaitasuna, artzeko mintzamena eta senazko ulerkuntza sintetikoa harengan hazten saiatu gara; eta badaki sukaldean, josten, lixatzen, pasarazten, iruten, etxea atontzen, haur zaintzen, marrazten, jostatzen, pentsatzen eta irizten. Horra hor, gure ustez, ikaskizunik onenak eta sakonenak.

Jabetu den ikaspenen aldetik, halere, aurreratuta dago; baina pittin batez desberdina den irizkera baten arabera. Esate baterako, ez du gramatika-erregelarik batere ezagutzen, ezta garaurik ere; baina Bigarren Mailako esanerako edo diktadu batetan, ez du bizpahiru huts baizik egiten. Hauxe da, ordea, eskolaren alderditik mintzatuz, haren adinari dagokion jakinduri-maila Ezen, batetik, senaz eta intuizioz bezala baliatzen bait ditu erregelak; eta bestetik, ikusmenaz. Jokabide hau, jakina, geure hezibidearen muinean ezarri ditugun haztamu-entseguen eta sorkarien ondorioa da.

Erregela abstratoaren ezjakintasun hau ez bezate pedagogiariek alde z aurretik ahulezitzat jo. Uler bezate, aitzitik, nagusiek berek Balik bezala jokatzeko dutela; eta gramatika-lege soilak gramatikalari batzuek ezagutu ohi dituztela, eta ez beste inork.

Gramatika-legeak ikasirik daduzkagu, bai. Baina hitz bat edo aditz bat egokiro idatzirik ote dagon jakiteko, geure sekantean idazten dugu, esaldi baten erdian paratzen, aurretik «ni» eta «zuek» jarriz irakurtzen dugu; alegia, pratikan aztertzen dugu kaso hori; eta azkenean, era horretara, ongien deritzagun idazkera onartzen.

* * *

Bego hori ortografiari buruz —esan duke norbait—; horretan nagusiak beti jo bait dezake hiztegiara. Baina erregelarik gabeko joskeraz, zer esango?

Duda-izpirik uzten ez duten etsenpluen bidez froga genezake (ortografiarena frogatzeko baino errazkiago) joskera ere ez dela haztamu-bidean poliki-poliki lortzen den jabekuntza bat baizik. Apurka-apurkako egokiera da; eta askoz ere bertako dago sorkurazko harmonia-sendimendutik, berezkuntzaz eta bitxikeriaz jositako erregelen moldaketa lantsutik baino. Bere izkribuen egokia logika-azterketa klasikoaren bidez, eta esakun-atalen aproposa elkarrekiko loturak eta erregelak aztertuz ikertuko lukean idazlea (horrelakorik balego!!) bihotzez urrikal nezake... Pentsaera oro eta arte-hazkunde oro itotzea litzake.

Idazleak, aldiz, bere pentsamenturik sakonena isurtzen eta paperean itzultzen duenean, zalantzak hartua izaten da idatzitakoa birrirakurtzean, eta esaldien egitura eta adostasuna entseatzen ditu; eta azkenean soilki, bere barruan daraman irudia eta kanpora azaldu duena osoki batera etxematean, bukatutzat ematen du bere izkribua. Ortografiari dagokionez, berriz, gauza

ezaguna da... moldiztegiako zuzentzaileak hartzen du-
tela bere gain!

Gure hezibideak, hortaz, ez du hutsunerik utzi Bali-
ren heziketan, ezta eskolastika klasikoaren aldetik be-
giratuta ere. Berexotasuna, nortasuna, jakin-mina, uler-
kuntza sintetikoa, eta arte-dohainak eman dizkio. Hots,
gaitasun hauek ez ditugu behin ere behar bezala isti-
matuko.

Ez dugu esaten geure saiaketa hauxe, puntuz pun-
tu, jarraitu behar denik. Bai, ordea, ondoriorik inpor-
tanteenak izan ditzaketen pedagogi-aholkuen abiabur-
utzat har daitekeala

PEDAGOGI-ONDORIOAK

Geure oharketei dagozkien pedagogi-ondorioak at-era baino lehenago, goazen hitz gutxitara biltzera xeheki aztertua dugun bilakabidea. Hau, ikusi denez, mintzairatik hasi eta marrazkiraino, izkriburaino; eta ideia idatzien edo inprimatuen ulerkuntza den egiazko irakurreraino.

A// Nola burutzen da hastapeneko hizkuntzaren ikasaldia? Orain arte ezelako zientziak gainditu ez duen jabekuntza bidearen arabera; alegia, ingurune laguntzailean haztamuzko saiakuntzak dakarren garaitza-pena.

B// Bi urteen inguruan, eskuaren eta behatzen moiden berezketa: aurrerakoan, bai paretan ari, bai hondarretan edo paperetan, lehendabiziko izkribuzko ikurrak ageri dira, oraingoz moldakaitz eta automatiko.

D// Lau urteen inguruan, lehenengo marrazkiak agertzen. Hizkuntzaren osakuntza bezala, horien hobekuntzan ere haztamu-bidearen legeak nagusi eta gidari.

— Haserako zirriborro automatikoetatik, ustekabean ala berariaz, lehenengo ikur-mordoak ageri dira, aurretikoan etengabe errepikatuak.

— Marrazkiak elkargainka metatzen dira, eta horren ondorioz marrazki batzuk berezten hasten dira.

— Bolara horretan barrena, marrazkia eskuaren ekintza hutsa da, psikismo harrigarri batek eragina antza. Ez du sustatzen ez zuzentzen inolako ideia gidatzailek. Ematen diren azalpenak beti dira ondotikoak, a-posteriori-koak; baina ez dira, izan, aztertzen den lanaren argitzapenak baizik (eta ez beti oso argi-emale).

— Gero bihurtzen da hizkuntza marrazkia: hein batez bederen haurra bere eskuaz eta teknikaz jabetu denean. Orduan da pentsamendu edo sendimendu baten marrazkizko azalpide.

— Beti bide berberetik, azalpide eta hizkuntza den marrazkia osatuz eta haziz joango da orduan.

E// Memento horretan, inguramenduak eta haurren dohainek pitin batez alda dezakete adinean —bategiz beste, halere, 5 eta 6 urteen artean— haurrak poliki-poliki beste azalpide baten kontzientzia hartzen du. Haseran, marrazkiarekin batera haziko da teknika berri hori, idazkuntza alegia, baina haren ikaspenekin inolako loturarik gabe.

Izkribuzko azalpidean, txikiagoa da sortzapenaren partea. Teknika berri hau zeharo baldintzen eta mugatzen dute inguramenduko beharrek.

Horra hor, beti bezala, jabekuntzaren eta aurrerapenaren eragileak: idurikatu beharra, eta inguramenduarekin ados jarri beharra batetik; eta, kidekuntzari buruz, idazten ikasteko beharra (Eskolako moldiztegi-teknikek eragina eta sustatua).

Jabekuntza honetan, ondoko pausu hauek aurkituko ditugu:

— nagusiei idurikatuz, grafismo-bihia (besteak beste, azpimarratutako sinatura izan zen hori Baliren kasoan; baina beste kasoetan, beste eredu bat izan daiteke lehen hozia);

— lerro-ilarak, eskailera gisakoak edo kurubilka, baina ezelako bereztasunik gabeak;

— lehendabiziko sinu berezien agertzapena, ondoko zurkaitz gisa erabiliak: ikurrik ximpleenak izaki (t, o, e, l, i), alegia eskuak azkarrenik mendera ditzakeanak. Ikur edo sinu horien ager-ilara, inguruko gorabeherak eta ustekabezko arrakastek alda dezakete; baina eragile nagusia beti berbera dago: oinarrizko bi keinuen bidez (alegia, *marra zuzena* eta *borobila*) idatz ahal izatea. Lege hau dela bide, hizki guztiak baino lehenago lumeroak agertu ohi dira, ia osoki marra zuzenez eta borobilez osaturik daudelako: 1, 4, 8, 0, 7.

— Nagusi bati, edo lagun bati, eskatutako ereduak edo jarraigarria gidari, liburuan edo ingurraztitan lehen-

dabiziko hitz ezagunen kopiaketa (pertsona-izenena, batez ere).

— Agerpide berria helburu pertsonaletan erabiltzeko beharra nabaitzen du haurrak —nahiz teknika hori oraindik oso bastoa izan—. Hasteko gutunak idazteko; marrazkiak azaltzeko eta moldiztegi-izkribuak presatzeko gero. Hitz ezagunak pausaleku gisa erabiltzen ditu.

— Zenbait hitz funtsezkoen jabekuntzarekin batera, hizki bakoitzari soinu bat datxekola ohartzen du haurrak. Soinuak elkartzen diren bezala hizkiok elkartuz, beraz, hizketa itzul daiteke. Soinuak beren fonetika-mailan harturik, horrela, haurrak esaldiak moldatuko ditu. Hanartean iduriketa eta kopia hutsa zen idazkuntzak, orain beste maila bat iristen du: azaltzea helburu, idazkuntza sintesi-sortzaile bihurtzen da.

— Hastapenean, soinuak idazkiz biltzekotan, nolagerta pilatzen dira hizkiak, edo elkarren segidan, eta pausalekutzat edo zurkaitz gisa berexita dauden letrak edo hizkiak hartuz.

— Hizki horien baliakuntza edo elkarketa haztamuka ontzen dira: inguramenduko teknika-laguntza eragileago, eta azkarrago ere aurreratzen haiek.

— Hobakuntza horiek, larri-larrian, ilara berberaren arabera agertu ohi dira. Eta haurrak orduan zalantzarik gabe bere bururazioak azaltzeko hainbat badaki. Ortografiaren fineziak eta ditzaren amaikerak geroago etorri ohi dira.

Idea horiek, eta beharrezko teknika-zehaztasuna

erantsiko dieten entsegu eta oharketa antzekoek, teknika berrien berexotasuna agerrerazten dute bederen, eta aipatu ditugun hobariak eta eragina argitzen.

Ez dugu eman nahi, bestalde, beheretik gora neur-tutako gaindikizun sailik; eta honen ondorioz gehiegizko araurik eta erregularik. Ikaspenen jabekuntza per-sonala da; nahiz, oro har, ibilbide nagusi bati lotua izan. Lotura horretaz ongi jagetu beharra dago.

Ahalik eta bildumarik laburrenaren bidez bukatuko dugu, beraz, liburuska hau; idazkuntzaren, azalpidea-ren et airakurreraren teknika berriak hitz gutxitara bil-duz.

BEREZKO IKASPIDE BERRIA

A) LEGE BERRIAK

1. — Lekuz aldatuz, arrastatuz, lauroinka ibiliz, gero zutik ibiliz (baina beti zerbaiti helduta), eta azkenean anken gainean bere buruz ibiliz, ziurki ikasten du haurrak oinez ibiltzen (ez badago harengan akats fisiologiko larririk, noski).

Era berean, marratuz, idatziz eta bere burua adieraziz ikasten du haurrak idazten eta irakurtzen, eta ez irakurriz.

Jabekuntza normala ez da inundik ere Eskola zaharrek uste zuena: alegia, irakurrera, idazkuntza, eta ideien itzulketa grafikoa gero; baina, hastean, ideiaren hitzezko itzulketa dator, gero marrazkiz eta izkribuzkoa; eta geroenean hitzen eta esaldien ezaguera, ida-

rokitzen duten ideiaren ulerkuntzarekin batera. Hots, ezagure horixe da, izan, *irakurrera*.

2.— Bide berri honetan barrena, aurrerapenak z dira gutxi gora-beherako lege razionalen arabera obratzen; baizik-eta haztamu-bidez, ongi burututako entseguen errepika automatikoaz, aurrerapen eta ekonomilege bati jarraituz, ausardian eta zuhurtasunean batera; eta beti ere nagusien erduei ahalik eta osokienik kopiatu eta hurbildu beharrak eraginda.

3.— Haztamuzko saiakuntza honek erakusten duenez, halere, badago funtsean barne-eragile bakar bat, beti berbera. Lehenengo aldian, haurraren egokieraren eta indartasunaren beharra; hurrengoan, teknika proposetan funtsatua, kidekuntzaren ideia; hau baita idazkuntzaren eta irakurreraren kaka.

4.— Haztamuzko saiakuntza honek ondoko hau behar du aurretik:

— bere inguramenduan ongi sartutako eta ezkondutako eskolan, ahalik eta bizitasunik pizkorrena;

— tresneria berria, bilaka-gune bakoitzean haurraren lan egokia presta ahal izateko;

— jarraigari izango diren ereduak, ahalik eta onenak izatea: hizketaz, idazkuntzaz, irakurreraz, musikaz, marrazkitzaz, eta jokabide osoaz;

— inguramendua laguntzaile eta sustatzaile izatea, bai famelian (haseran), bai heziketa-giroan gero (guri dagokigun alorrean, beraz, bigarren hau).

5.—Lehenengo eskola-maila honetan, gramatika eta joskera-erregelak ez dute ezertarako balio; eta ezertarako balio ez dutenez gero, horien pratika, bortxatua delarik batez ere, kaltegarria da. Erregelak ez dira kanpotik erakasten, eta beren itxura abstrato, hotz eta hilean ematen. Erabiliz, eta erabilera hutsaz, ikasten dira; xukatuz ikasten dira. Ezagutu baino lehenago ego-kiro erabiltzen dira. Hurrengo mailetan beretan ere, ez dira esperentzia obratuaren ondorioa baizik.

Eskolako bideak, adimenetik, teoriatik eta zientzia abstratotik abiatzen dira; eta gero pratika aldera josten, hau gutxi gora-behera jokabideei itsatsiz eta ego-kituz.

Bide hau, benetan da anormala eta eragabea. Erakaspide berria, aldiz, eguneroko biziera normaletik (berezko eta adigaitz) abiatzen da; eta horretatik alderaketara, bilaketara eta legera.

Aldakuntza hori izango da gure pedagogia herrikoia-ren garaitzpen handietako bat.

B) TRESNERIA ETA TEKNIKA

Lilitegientzako eta haur ttikien eskolentzako gomendatzen dugun teknika berria zehatzago aztertu du gu beste leku batetan (1).

(1) BEM, 7 gn. z.: "Moldiztegiaren bitartezko irakurrera Eskolan". Hemen teknikaren lerro nagusiak besterik ez ditugu gogoraziko, geure lan honek behar duen praktikotasuna ongi markatzeko.

1.— *Gure irakurrera-idazkuntzaren berezko ikaspi-dea, funtsean biziera-bide bat da.*

Fisiologiak, psikologiaren inarkun egokiak, eta inguramendu laguntzailearen aberastasunak laguntzen dutelarik, hobeki eta azkarrago ikasten du haurrak hitzegiten; beti ere bere indarrak gorago eta osokiago usiatzeko deiak eraginik, bizitasun handiagoan hazten da. Hitz batez, zenbat-eta inguruan bizi indartsuago eta aberatsago izan haurrak, eta hanbat-eta lasterrago eta segurkiago igoko da azaldutako bilakabidetik, eta osokiago ere biziera indartsu, oparo eta orekatuan oratuko.

Bizitasun alderdi honi ekiten diogu beti; antzinako ikaspide pasiboetan benetako problema baztertu egon ohi zelako. Maizegi itxurakeria huts bihurtzen zuen harek egiazko arazoz (axalez zientzia kutsuz estaliz); eta bizia goratu eta aintzatu beharrean, eta hau eginenez funtsezko jabekuntzetan baliatu, apaldu eta moteldu egiten zuen.

Gure haurrak biziago izan, eta psikologiaz eta fisiologiaz zentzatuago; famelian, izadian, gizarte eta eskola-giroan erabili duketen haztamuzko saiakuntza ugariago; eta haztamuzko saiakuntza honen oinarri guk haien bizibidearen ondoan inguramendu osoago eta laguntzaileago prestatu; eta azkarrago eta seguruago izango da hizkuntzaren jabekuntza —haztamu-bideari lotua— eta, berezko haztamu-bideaz ari beti, azkarrago eta seguruago ere izango da idazkuntzaren eta irakurketaren jabekuntza.

Ia-ia hau idatzi dugu arestian: teknika horien jabe-kuntzaren habaila, haurren hizkuntzaren aberastasu-

naren mendean dagoela. Baina hori ez da aski, eta fenomeno hertsikerian ikustea litzake. Ezen baliteke hizketaren joritasuna eta alegiazko hitz-jario oparoa gertatzea, eta, hala ere, seinale horiek kalte-ikur izatea. Dohain bat sobera handitzen, eta pertsonaren bizitik aldetzen denean, bizi horren eragile eta ispilu izan beharrean, biziaren ukatzaile gerta bait daiteke.

Baliteke alegiazko aberaskeria horrekin idazkuntzaren eta irakurreraren jabekunde normalik ez etortzea, akuilu eta makur berberetan hau oratzen ez bada. Horregatik esango dugu: idazkuntzaren eta irakurreraren berezko jabekuntzak ondoko gauza hauek ditu oinarri: pertsonaren bizi-aberastasuna; pertsonaren barne-oreka berezia; pertsonaren eta inguramenduaren arteko oreka, osoago ala erkinago; eta inguru-giro horrek, azkenik, haurrari eskain dizaizkiokean aukerak eta jokatibideak.

Aintza dezagun lehen haurtzaroko bizi hori, antola eta molda dezagun; eta batera idazkuntzaren eta irakurreraren tekniken jabekuntza erraztuko dugu.

Eta honek eraginik, ondoko hau gomendatzen dugu:

— erakasleak gizarte-mailan jokatzea, haurrek famelian, bai diruaren aldetik bai zuzenbidearen eta psikologiaren aldetik ere, ahalik-eta girorik onena eta adosena izan dezaten.

— geure idazlanetan proposatu ditugun «Haurtegiak» antola daitezen, bultzatzen laguntzea.

— beste lekutan eman ditugun teknika-aholkuak gidari harturik, ahalik eta sakonkienik gure lilibtegiak eta

haur-eskolak bestelakatzen laguntzea, egiazko biziera-leku bihurtu arte.

2.— *Haurraren eta gizarte-inguramenduaren artean sortzen den lotkian, hizkuntza da halere ezinbestezko mailarik beharrena.*

Honetan zabartu eta laxatu beharrean, eskolak lagundu egin behar du hizkuntzaren hazkundean eta osakuntzan; baina bizieratik ez urruntzeko, eskolastika bi dez mesfidatu behar dugu.

Bizian oratu behar da, hain zuzen, hizkuntzaren heziketa hori; eta ez eskola barneko bizieran bakarrik, baina biziera osoan, zabalean, biziera berezkoan eta gizarte eta sentidoen bizieran batera.

Horretarako, bestela antolatu behar da askola, arras bestela, beste taxukera berri bat asmatu behar zaio, beste modu batez ulertu behar da haurrentzako giro eta inguramendu atal garrantzitsu bat dela liliturgia; eta bertan erabiltzen diren tresnez, haurren artean jaiotzarazten diren harremanez, eta haurren eta kanpoko inguramenduaren artean sortzen diren loturez, beste ideia berri bat mamitu behar dela.

Alde horretatik, egokikuntza horretan josi behar ditugu geure begiak, eta geure kezka ernatu.

3.— Halaz ere, ez dugu gauza bat ahaztu behar: *Bai gurasoek bai gizarteek ekintza berezi bat espero dutela eskolatik; alegia, kulturaren jabeakuntza.* Eta, lehenengo ikas-mailari gagozkiolarik, haurrak idazkuntzaren eta irakurreraren teknika funtsezkoek haurra jabetzea nahi duela.

Biziera-aberastasunik handiena bilatuagatik ere, beraz, helburu berezi horietara daramaten ekintzei eta erakaspideei eutsi behar zaie. Horri buruz, azaldu dugun bidearen arabera jokatuko dugu.

4. — *Azalpide eta adierazpide bila, marrazkia lagun.*

Utz ezazu haurren esku arbel beltz bat, eta igeltso mordo bat harekin, noski; eskain zaizkiozu oparo pape-
ra, arkatzak (kolorezkoak hobe), pintzelak eta margo-
kiak; eta haurrak bere oldez marratuko du. Hastapene-
tik hasi behar duela konpreni dezagun; baina bere has-
tapenetik, eta ez guretik. Ikaskairik ez, zuzenketarik
ez, iritzi atsekaberik bat ere ez. Mementoko gutxienez,
ezinbestezko arrakasta-kutsu eta uste hori eman behar
zaio. Gauza batetan soilik geure laguntza agiria: ha-
ren eskuaren eta behatzen mogimenduak eskuratzeko,
eta beti igotzeko eta hobetzeko dakargun berezko nahia
sustatzekotan, haurraren lanak eta irudigarri jarri di-
ren ereduak gonbaratzeko. Zorrotz ditzagun arkatzak,
hori bai; presta ditzagun margokiak; para ditzagun ar-
tistatxoak ikuspegi gogoangarrien aurrean; erakuts di-
zaizkiegun santu hunkigarriak; ernakunde-giroa sor de-
zagun, haurrak berez bere burua azal eta adieraz dezan.

Ez bekigu aski irudi, halere, gauzak libroki eta be-
ren gisara egitera uztea. Amak bezala joka dezagun.
Amak jakiten du haurrari juxtu bere behatza ematen:
lur jotzeko unean bertan, ez goizegi ez beranduegi.
Haurrak horrela bere garaitzapen-ustea atxiki dezake.
Gauza bera aho dorpeak hitz egokia esan-arazten la-
guntzerakoan.

Laguntzea, beti laguntzea; eta beti, halera, haurrak
bere buruz garaitu duen kutsu hori salbatuz laguntzea,

maila hura haurrak berak gainditu eta igaro duela sinistaraziz, eta horrela hurrengoan, konfiantzaz horniturik, aurrerago jotzeko bidea emanaz. *Zuzendu eta zigrtu beharrean lagundu eta lagundu.*

Hauxe da pedagogia-liburu guztietan, eskolako atarrietan eta eskolatzailleen mahainetan idatzi behar litzakean aholku nagusia.

Haurra marratzen ari da, eman dezgaun. Bere buruz eta gure laguntzarik gabe egin badezake, hobe! Bestela, helbururaino iristekotan nekatu eta ahitu baldin bada, eta erre kara jotzeko arriskutan dagoela nabaitzen badugu, orduan lagun dezagun, ez lehenago.

Arkatzezko marratxo bat, haren ekintza-pleguaren barruan beti, edo ia erreparatu ezinezko pintzelakada txiki-txiki bat, aski izan daitezke haurraren marrazkiari itxura emateko, eta gero haurrak harro-harro erakutsiko duen margoa bururatzeko eta edertzeko. Kontuz harelere: ez du zuzendu behar, are gutxiago haurraren eskua heldu behar. Horrela, ikutuz eta helduz alegia, eman genezakean arkatzezko ikuituak, sortzen ari den lanaren xarma honda lezake; hitzegiten ari den haurraren ezpainak zakarrean eta indarka irekiko bagenitu bezala.

Utz dezagun bera bere buruz mailak igotzera, ez dezagun kaso zailetan baizik lagun, hauetan segurkiago eta azkarkiago hel dadin.

Hona hemen hobetzeko, barnea adierazteko, eta indartzeko nahia landuz, haurraren marrazki-ahalmena eta joera sustatzeko eta betetzeko bi bide.

Eskura zazu polikopia-tresna bat. Honen bidez marrazkirik osoenak eta bizienak ugal edo kopia itzazu, funtsezko koloreak eta guzti. Bestela *limografo* bat eros zazu: honek lerroak kopiatzen ditu (baita itzalak ere, behar izanez gero); baina koloreak ez.

Tresna honek hobari bat badu: pratikoa da, eta kopia bikain gehiago eman dezake. Egin itzazu, horrela, hautatu dugun marrazkiaren 20 edo 30 ale.

Hasteko, mirari honekiko harridura eta lilura ikusiko dituzu haurraren: marrazki bat istantean eta guztiz berdinki kopiatua. Suma zazu, bestalde, margolari gaztearen zirrara bere lana horrela ugaldurik eta ohoraturik ikustean. Sendimendu horiek eta polikopiatzeko poza aski izango dira, beste barik, barnea azaltzeko, sortzeko, asmatzeko, nork bere burua adierazteko, eta ondoko inguramenduekin harremanetan jartzeko zerbitzari ezin hobea den marrazki-gogoia piztuzeko.

Ez da dena, halaz ere:

Antzinako katoi zaharraren ordainetan, haur bakoitzak liburu-joskura aldagarri bat izango du, bere egiazko liburu gisa. Egunero-egunero, polikopiotutako marrazkien ale bana erantsiko du: berea eta lagunena. Baina polikopiatutako orri hori, bere horretan nortasunik gabea, koloratu egingo du aurretik, beretuz eta, nolapait esateko, berriz berak bir-sortuz.

Orri horietxen beste kopiak, era berean, ikas-gelaren ingurua apainduko dute; eta beste batzuk, azkenean, gurasoei eta orain azalduko ditugun «kideei» helaraziko zaizkie.

Eskolen zerbitzutan jarri ditugun tresnei esker egin daitezke lan horiek. Hots, hauek akuilatzaile bikainak dira nortasunaren eta izaeraren emari (hein batez berderen) den marrazkia sortzekotan eta besteri agertzekotan.

Eskola zaharrak bazituen bere ikasleak, egia; baina hauei etengabe sendiarazten zizkien beren ezintasuna eta beren hutsa; eat bestetarik ere hauek markatzen eta nabarmen-arazten. Guk, aitzitik, gutxiespen sendimenduak lanjeroski landu eta babestu beharrean, haurren sormena goraipatzen dugu, arrakasta biltzen eta ahalmenez ongi jabetzen laguntzen ditugu. *Bizia «laguntzen» dugu, hitz batez, igotzen, garaitzen eta gailen irteten.*

Hona hemen orain beste sustabide bat.

Har zazu linoleo puska bat, eta kalka zazu haren gainean kopiatu nahi duzun marrazkia. Prestatu eta azaldu ditugun lanabesez, eta gure teknika-oharrak kontutan hartuz, gabra zazu zerorrek marrazki hori; eta, gure tresneria apala baliatuz, tira zazu moldiztegiarentzako tintaz. Grafismo gisa ondorioa hobea da polikopiazkoa baino; batez ere horrela lortutako grabaketa kolorez jantzirik dagoenean.

Teknika horietan guztietan garaitzeko ez da batere marrazki-dohain apartaz hornitua izan behar. Bistan da: ez da gauza bera erakasleak arte-dohainok izatea ala ez izatea, horien bidez laguntza bikaina eman bait ditzazkie eskola-emaleak ikasleei. Baina, nahiz arte-aharmen horiek ez izan, marratzeko aukera egiazkoak, marrazkion ugalketak eta zabalketak, alor horretan elikatura, helburu eta bultzada ematen diote haurrari. Bi-

latutako xedeak nahi-ta-ez iritsiko dira; eta marrazkiak, haseran sortzaile, adierazle geroago, ederki beteko du bere prestaera-lana bigarren pausuari buruz. Alegia: *idazkuntza-irakurrera*.

5. — *Idazkuntza*.

Marrazkien polikopiaketak eta zabalketak, urrutiko eskoletarako bidalketa jarraituak, geure kideei idatziko dizkiegun gutunek, denek bultzatzen dute ikaslea idazkuntza marrazkitik bereztera. Gutunok, bestalde, horrela moldatu behar dira hastapenean: haurrek asmatuko dituzte idazkizunak, erakasleak esanera arbelean idatziko ditu, eta orduan haurrek berek arbeleko iskribu eredutik kopiatuko.

Haseran, ikusi dugunez, haurrak izenez eta hitz eza-gunez arduratzen dira. Idatz ditzagun nasaiki, hortaz, arbelean, fitxatan, moldiztegian; eta horrela haurrek, zeharo idazki horietan murgilduta, betirako jabetuko dira grafismoez.

Iduriketaren aldi hori garaitu, eta adierazpenaren aldera jotzeko, egin dezagun oso maiz —egunean behin gutxienez— ideien, hitzen, sendimenduen, haurren ahozko eta keinuzko azalpideen, itzulketa. Haurrek, horretara, gogoan, belarrietan, eta jokabidean, arbelean «marraztu»tako hitzen eta esakunen mami funtsezkoa edukiko dute. Pentsamendu grafismo bikotearen loturaz jabetuko dira. Eta hitz berrien oinarrizko itxurez nagusiturik, beren burua ere adieraztera bultzatuak izango dira; eta horretarako jaiotza eta hazkundera gorago aztertu dugun teknika antzeko bat baliatuko dute.

Kasu, halere; eta ez dezagun idazte hutsagatik idatz,

ezta haur-ideiak azaltzen ditugularik ere; ezen saiaketa laister bihur bait daiteke betebegar. Nola edo hala, helburu bat ezarri behar zaio idazketari; eta helburu hori ezin daiteke hau baizik izan: eskolako paretetik kanpora, eskolako neska-mutilen multzotik at, pentsamendua zabal eta heda ahal izatea.

Puntu horretan daudelarik, ezin dakieke hurrei eska, liburuaren ordeztu, izkribu-bilduma edo ingurrazti bat atxik dezaten. Idazteko eta kopiatzeko moldakaitzegi dira oraindik.

Jabeturik daude moldakaitzasun horretaz; eta haurrak, arrakastak biltzeko ez bada, ez dira beren ingurraztiz edo idazki-sortaz pozik geldituko.

Arrakasta hori lortzeko, beharrezkoak dira polikopia, limografoa; eta, beti hobea, moldiztegia.

Orduan bai: mirakuilua egina, eta aldia gainditua. Arbelean idatzi den izkribuaren azalpede-tasuna ederki konprenitzen du haurrak: izkribu hori polikopiatzen edo inprimatzen bait da. Orain, zuri-beltzetan, orrialdea dotore agertzen da; eta biziera-liburuari erasten zaiola rik —eta hau bai horrela sorta pertsonal eta bere-berea bihurtzen— orri berezitan edo kaseta gisa gurasoei ematen, edo kide txiki urrunen jakin-minaren zuzpergarri bidaltzen delarik, orduan bai: orduan gauza ageria da idazkuntza zertarako den eta zertarako ikas.

Orduan barnea adierazteko gogoia, norberaren hizketa arbelean idatzirik ikusteko, eta geroago polikopiaz eta moldiztegiz inprimatzeko joera agertzen da. Harro egon daiteke. Noski! Arrakastak liluraturik dago; hots, arrakasta hori, teknika berriei esker, iraunkorra da. Es-

ku-izkribua irakurtzeko beharra nabaitzen da aurrenik; gero izkribu hori bera inprimaturik irakurtzeko, eta ki-deengandik jasotako lerroetan izkutaturik datzan pentsamendua asmatzeko. Eta, horrekin batera, geure burua adierazi nahi genuke... Horra hor ikasaldia abian... Orain loraldia laguntzea aski.

Idazkuntza, horrela, hastapenean kopia soil izana, adierazpide bilakatzen da, gero eta finagoa, gero eta pratikoagoa. Eta dena, ikaskairik gabe! Haurraren bizeran, ikaskaiak ez dira izango arrakasta-bilduma eta haztamu-bide taxutu baizik. Ezin daitezke eman (eta ez dira eman behar) gure teknika hutsuneen edo ahulerien betegarri gisa, eta ustekabezko kinka txarrak eta makalaldiak bizkortzeko baizik.

Gaitzerdi bide hori besterik ez dira. Gure berezko erakaspideak aski izan behar du bere buruz eta ezelako eraskinik gabe; eta azterkizun dago, hain zuzen ere, jokabide eskolastiko zaharren erlikia horiek zertan zaizkigun baliagarri, eta zertan erdizka bederen onuratsu.

6. — *Irakurrera.*

Irakurpidea markatua da onezkero eta abiatua; eta uste duzun baino aurreratuago ere bai haren teknika, zalantzarik gabe.

Irakurketaren funtsabideak eta akuilatzaileek eragirik, idazten erakasteko baliatu diren tresnei esker, haurrak ziplo ezagutzen ditu ordura artean erabili zituen hitzak. Lehenengo ikaspen horiek; eta liburuetan, kasetetan, gutunetan eta kideen inprimakinetan aurkitzen dituen grafismoak, ziplo eta oldez alderatzen ditu.

Horretan badago ariketa zorrotz zalapartagabe eta etengabe bat; baina ez da neurgarriago haurrak egokiro hitzegiten edo segurki ibiltzen ikasi artean egiten dituen ariketa kondagaitzak baino. Maila horretaraz gero, begi-kolpe orokor batez badaki izkribuen mamia konprenitzen eta esaten. Badaki irakurtzen, nahiz oraindik ere ezagutzen ez dituen hitzak silabaka ematen ez jakin.

Horra hor, beraz, pedagogia berriak *irakurrera isila* bataiatu duen gaitasun horren garaitzapena. Zertan dazta? Honetan, funtsean: izkribu baten adierazkizuna sinu grafikoen bidez somatzean edo aditzean. Hori logika-bidez, intuizio orokorrez, ala bi ulerpideez batera lortzea, bost axola guri orain. Munta duena hau da: haurrak giltza magiko hori heldurik edukitzea.

Erarik onenean irakurtzen du: argiro, adimenaren arabera. Eta ez diogu puntu honi sekula aski ekingo: irakurpidearen hastapenetan hartua, berebiziko balioa duela ohitura horrek. Alegia, izkribuetan itxura haragigabe eta norgabe bat ez ikustea; baina itxura horrek adierazten duen pentsamendua, eta gure barnea aberats dezakean bizia.

Halako batez, goizago edo beranduago, lehertzapena gertatuko da: irakur-teknikaz bapatean jabeturik, eta ongi garaitzeko ziur, goraki irakurtzen hasiko da, letraka eta zalantzatan nekatu gabe. Ezaguera orokorra eta guztizkoa izango da, eta ikasaldia bukatuta: *irakurketaren bidez hizkuntzatik hizkuntzara*.

Haurra zutitu egin da orain. Nola gertatu da? Ez da hori guretzako funtsezkoena. Haurrak badaki, zalantzan

jarri ez zenuen fruitua hor duzu; eta orain garaitzapena kanta dezakegu: *badaki ibiltzen! irakurtzen ere badaki!*

* * *

Aldakuntza hauen iraultza osoa ongi ulertu izan arte, halere, ezerk ez du erakaslea trabatzen, honek berezko jabeakuntza hori egoki deritzan ariketez osoa dezan. «BEM, 7 gn. z.» an bereziki, osagarri izan daitezkean erakaspide guztien berri zehatza ematen da, kasoen arabera.

Baina gauza bat esan behar dugu argi eta garbi: ikaspide horiek ez dutela inoiz irakurpidearen muina izan behar; ez direla eraskinak baizik. Eta hauen balioa aisago izan daiteke liluraren ondorio, saiakuntzaren frogantza baino.

Horiek erabiliz, aita harek bezalatsu jokutzen du erakasleak: aita bat, haurrarekin pasean zihoalarik, pitin bat nardaturik eta ahalkaturik zegoen, haur hura lauroinka ari zelako; eta, horretan, besotik heldu du, eta gizonak bezala ibil-arazi; batzutan, halere, negar-garriro herrestatuz, eta haurraren hanken ahuleziaz jaramonik batere egin gabe. Hein batez, ariketek horrela laguntzen dute haztamuzko saiakuntza; baina honek eskierki eramango luke ibilera zuzeneraino. Zalantza egin dugu, ordea. Eta, nolana, aitaren harrotasuna bederen salbatu nahi izan dugu!

Gurasoei eta kontrolariei laket baldin bazaie, berriaz, adinetan baino lehenago ere haurrak oinez ibiltzen ikustea, zerorrek beharko dituzu eskutik heldu, eta zeure kabuzko ariketen bitartez, irakurtzeko eta idazteko sailetan sasi-jabekuntzaruntz gidatu beharko ditu-

zu. Berezko aurrerapidearen urratsak (garaitzapenak dakazkien bakarra, berriz ere diogu) ahaztutzen ez badituzu, eta zeure gain hartu duzun haurra presaka joa teagatik ahitzen eta unatzenegi ez baduzu, gaitza erre-mediagarria izango da.

* * *

Eskolaren zerbitzutan jarri ditugun lan-bide horiei esker obra daiteke pedagogia-iraultza hori. Baina, egia esan, bai izpirituan, eta bai eskolatzaillearen betekizunaren ideian, ganbiamendu osoak mamitu behar dira. Eta hau, ongi dakigu, eragozpen gaitza da.

Haur ttikiaren lehen hitzerdiak amak entzutean, konprenitu egiten ditu, eta erantzun ere bai, eta horrela elkarrizketarik hunkigarriena hasten du. Era berean erakaslea ere adi jarriko da, haurraren entseguak gogaidetasunarengatik edo ulertzeko.

Haren ikasleen marrazkizko hizkeraz jabetzen saiatuko da; alde batetik, zuzentzen eta zigortzen baino, *laguntzen* entseatuko da, lehendabiziko zirriborroak idazkuntza-zantzuak bait dira: teknikaz, adimenez eta praktikaz. Lehenengo hizkiak eta izkribuak irakurtzen ikasiko du; eta horrela magiazko elkarpede bat lortuko du haur ikaslearengan, gero, igokundean barrena eta garaitzapenerainoko bidean, euskarri gotor.

Eskolaren alderditik ikusita, eragozpen bakar bat somatu uste dugu jokabide horretan.

Antzinako erakaspide zaharrek itxurazko berme edo bahitura bat eskaintzen bide die eskola-emaleei, gurasoei eta kontrolariei: haurra holako edo halako orrial-

deraino heldu da halako katoian; ongisko ala erdi-purdi badaki kopiatzen; eta kopiaren ontasuna neurtu egin daiteke, gutxi gora-behera bederen. Salbatua da pedagogia! Ariketen aitzinean (ulertzen eta beretzen ez dituelako) haurrek neke hartzea edo negar egitea bost axola: papagai-kulturari berdin zaio hori. Eta, egia esan, sasi-kultura horrek, gaitzaldera makurtuz ez bada, ez du ezertan aldatzen haurraren nortasuna, ez haurraren bilakabidea ere.

Apalki aitortzen dugu, geure haurren aurrerapenen neurtzeari buruz, amak bezain deshorniturik gaudela. Baina segurtatzen gaituzten beste irizpide batzuk badazkigu guk: *gure haurrak bizi egiten dira*; eta berebiziko psikologilaria izan gabe ere, berehala nabaitzen dira bizi horren mugarriak eta ezagugarriak: begirada dago, jokabidea, jatortasuna, ekintzaren maila, bakea eta aldostasuna. Horra hor gure pedagogiaren bahitzaille nagusiak. Jabekuntza, indartasuna eta jakintza, begirada horretan, jokabide horretan, jatortasun horretan eta langiletasun horretan daude. Hauek gabe ez dago bakerik.

Bizi hori estimatzen eta izartzen ikasi beharko da. Saiatzea balio du. Ez duzuia uste?

* * *

Zeren-eta horretara harkaitzaren gainean eraikiko bait dugu. Eta gure eraikien gotortasuna eta iraupena, zuzenesten teoriko guztiak baino gorakiago eta ermu-kiago mintzatuko bait dira.

Zortzi edo bederatzi urtez, eman dezagun, mila ariketa eraginez, mila irakurgai egin-araziz (azalduz ala

azaldu gabe), anitz esanerako-izkribu emanaz, majina bat gramatika-erregela buruz ikas-araziz, eta kontrolak eta zigorrak ugari barreiatuz iritsi dukezu, aitor dut, zeure xedea; eta zure ikasleek badakikete jakin frantses hizkuntza ederraren oinarria. Horra, ordea, horietxek soldadutzara heldu, eta dena ahaztu dute: bai ortografia, bai joskera, bai irakurrera. Eta ez txarrenek bakarrik, ez: baita zure ikaslerik aurreratuenek berek ere —beren ikaskizunei eutsi ez dietenez ari gara— dena ahantzia dute. Eta haien ezjakintasun guztizkoa zure lotsa, zure desohorea eta zure erakaspideen errekaratzea bera da.

Buruzko lanak oro eskolatik irteteen oso utzi ditzutelako, diozu zuk; edo lan eskolastikoak oro, hobeki esateko. Honek, ordea, ez du txikiago egiten zure hutseginen larria.

Bere herrian haztamu-bidez hitzegiten ikasi duen haurrak, ez du sekula ahaztuko bere gurasoen hizkera, ez bere herriko doinua ere; nahiz herbestean eta urruti luzaz egon behar badu ere, nahiz eta hamarka urtetan barrena bere ama-hizkuntzarekin batere antzik ez duen mintzaira batez hitzegin behar badu ere, beti atxikiko ditu ama-hizkuntza eta eskualde-doinua. Hamar urte, hogeitau urteren buruan, aski izango du herria berriz ikustea, sorterriko airea berriz hatsartzea, erreka-zen zurrumuru isila berriz entzutea, bere ikaspen funtsezko haiek burutu ziren bizi-giro hartan berriz murgiltzea, eta betirako ahantziak ziruditzen hitzak, esakerak eta doinuak, beren hartan, eta harritzen eta hunkitzen ere gaitun zehaztasun osoan, gudan jalgiko dira.

* * *

Idazkuntza-irakurreraren jabekuntzari buruz, beraz, ikaspide berbera hartuz, sentidoen mailako lotkiak eta oihartzunak sortzen ditugu, iraunkor eta ezabagaitzak. Hobetuz eta pertsonen biziari erantsiz joango den bi-zi-kate bat lotzen dugu. Denborarekin, jokabidearen atal bihurtuko dira horiek, etengabe igotzeko gure beharra elikatuz eta goratuz.

Badira herrien bizieran itxura apala eta ondorio garrantzitsuak dakazkiten aldakuntzak eta zutierak. Hauxe da horietako bat.

Etorkizunak emango du garrantzi aparta horren berri.

H I Z T E G I

ARRAKASTA: éxito, succès.

ABIABURU: punto de salida, point de départ.

ADIERAZMEN: facultad de expresión, expressivité.

ADIERAZPIDE: método de expresión, méthode d'expression.

BIZIGABE(TU): desvitalizar, dévitaliser.

BILAKABIDE: proceso evolutivo, procès évolutif.

BILAKA(TU): evolucionar, évoluer.

BEREZKO: natural, naturel.

BERRE(TU): repetir, répéter.

DOIBERA: propenso al matiz, donné à la nuance.

ELKARGAINKETA: yuxtaposición, juxtaposition.

ESKOLASTIKA: antigua técnica pedagógica escolar, ancienne méthode pédagogique scolaire.

ERAKASLE: profesor, enseignant.

ERAKASPIDE: método de enseñanza, méthode d'enseignement.

EREDU: modelo, modèle.

ENTSEGUZKO: experimental, expérimental.

ERAIKIKUNTZA: proceso constructivo, processus de construction.

ERREPIKA(TU): repetir, répéter.

FUNDIERA: destrucción total, destruction totale.
FUNTSABIDE: fundamentación, motivación; motivation.
FUNTSEZKO: fundamental, fondamental.

GARAITZAPEN: victoria, victoire.
GAINGIROKI: de modo superficial, superficiellement.
GAINDI(TU): superar, dépasser.
GIZARTE: sociedad, société.
GIZATAR: humano, humain.
GARRANTZI: importancia, importance.

HAZTAMUKA: por tanteo, en tâtonnant.
HAZTAMUZKO SAIAKUNTZA: tanteo experimental, tâtonnement expérimental.
HOBEKUNTZA: proceso de perfeccionamiento, processus d'amélioration.
HIZKI: letra, caractère d'écriture.
HOBARI: ventaja, avantage.
HURBILKUNTZA: aproximación, approche.

IRAKURPIDE: método de lectura, méthode de lecture.
IDURIKA(TU): imitar, imiter.
INGURAMENDU: medio en que se desarrolla algo, environnement.
IDAZKUNTZA, IDAZKETA: escritura, écriture.
IRAKURRERA: lectura, lecture.
INGURRAZTI: cuaderno, cahier.
IKASPEN: cosa aprendida, chose apprise.
IDAROKI: sugerir, suggérer.
IKASKAI: lección, leçon.
ILAUN: brizna, sutil; brin, subtil.
IKUR: signo, signe.

JABEKUNTZA: proceso de adquisición, acquisition.

-KUNTZA: sufijo verbal que indica el proceso de ejecución correspondiente al verbo; suffixe verbal qui indique le processus correspondant au verbe.
acto de; acte de.

KIDE: alumno correspondiente de otra escuela, correspondant de l'autre école en rapport.

KIDEKUNTZA: puesta en correspondencia, jumelage.

LUMERO: cifra, chiffre.

LIPAR: instante, instant.
LOTKIA: relación, rapport.

MARRA(TU), MARRAZ(TU): dibujar, dessiner.
MARRAZKI: dibujo, dessin.
MOLDIZTEGI: imprenta, imprimerie.

NORGABE(TU): despersonalizar, dépersonnaliser.
NORKI: personaje, personnage.
NORKUNTZA: proceso de personalización, processus d'acquisition
de la personnalité.

ONURATSU: provechoso, avantageux.
OLDEZKO: espontáneo, spontané.
OREKA: equilibrio, équilibre.
OHARKETA: observación, observation.
ONDORIO: consecuencia, resultado; conséquence, résultat.
ORO HAR: viendo la cosa en su conjunto, dans l'ensemble.
OROKOR: global, global.

SINATURA: firma, signature.
SENAZKO: instintivo, instinctif.
SAIAKUNTZA: experimentación, expérimentation.
SORKURAZKO: congenital, pris à la naissance.
SUSTA(TU): promover, dar mística, incitar; promouvoir, maintenir.

URMAEL: estanque, étang.
ULERKUNTZA: comprensión, compréhension.

ZERTZELADA: circunstancia en que se produce un hecho, detalle;
circonstances d'un évènement.
ZENBAKI: número, nombre.
ZEHAZTASUN: exactitud, precisión; précision, exactitude.
ZIRGILU: boya, flotteur d'amarrage.
ZUZENESPEN: justificación, justification.
ZITU: fruto, cosecha; récolte.